

# ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

EUSKARAREN GARAPENAREN IRAUNKORTASUNA EDO  
«DABILLAN HARRIARI ETZAIKA GOROLDIORIK LOTZEN»



Euskararen Aholku Batzordea  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



# ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

EUSKARAREN GARAPENAREN IRAUNKORTASUNA EDO  
«DABILLAN HARRIARI ETZAIKA GOROLDIORIK LOTZEN»

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>>.

Argitaraldia: 1.a, 2016ko uztaila

Ale-kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)


Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Sacal, S.L.

ISBN: 978-84-457-3407-0

Legezko Gordailua: VI-463-2016



## AURKIBIDEA

**Euskararen Aholku Batzordearen Osokoa** 7

**Euskara 21 Batzorde-atal Berezia** 9

### **HITZAURREA:**

*Euskararen garapen iraunkorra helburu, elkarlana makulu*

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO

Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Euskararen Aholku Batzordeko  
Euskara 21 Batzorde bereziaren presidentea

11

**ETA HEMENDIK AURRERA ZER?** 19

Eta hemendik aurrera zer? 21

1. Atarikoak 23

2. Urratu dugun bidea 29

3. Nahia giltzarri 31

4. Etorkizuneko gizartea irudikatuz 35

5. Euskararen garapen edo hazkunde iraunkorra bermatu 41

6. Gure hizkuntza aniztasunaren kudeaketan, ekitatea oinarri  
eta bizikidetza helburu 43

7. Zer etorkizun nahi dugu euskararentzat? 47


8. Hizkuntza hitzarmena indarberritzeko zutabeak 55

9. Lehentasunen marko baterantz 61

**ERANSKINAK** 77

1. Euskararen proiektzioa 2036 79

2. Euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren  
oinarriak 103



## EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSOKOA

(2016ko maiatzaren 11)

### ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIAK:

**Lehendakaria:** Iñigo Urkullu  
Renteria, Eusko Jaurlaritzako  
Lehendakaria

**Lehendakariordea:** Cristina  
Uriarte Toledo, Hezkuntza,  
Hizkuntza Politika eta Kulturako  
sailburua

Patxi Baztarrika Galparsoro,  
Hizkuntza Politikarako  
sailburuordea

Joseba Erkizia Itoitz, HABEko  
zuzendari nagusia

Arantza Aurrekoetxea Bilbao,  
Hezkuntza sailburuordea

Maite Iruretagoiena Iburguren,  
IVAPEko zuzendari nagusia

Ane Urkiola Alustiza, Ogasun  
eta Finantza Saileko Zerbitzu  
zuzendaria

Odile Kruzeta Olañeta, EITB  
Irratiaren zuzendaria

Igone Martínez de Luna Unanue,  
AFAko Euskara, Kultura eta Kirol  
Saileko diputatua

Ana de Castro Rubalcaba, BFAko  
Euskara Sustatzeko zuzendari  
nagusia

Mikel Irizar Intxausti, GFAko  
Hizkuntza Berdintasunerako  
zuzendari nagusia

Mikel Pagola Tolosa, Euskal  
Udalen Elkarteko ordezkaria

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua,  
Euskaltzaindikoko ordezkaria

EABren idazkaria: Jorge Giménez  
Bech, Hizkuntza Ikerketa eta  
Kordinaziorako zuzendaria




### ADITUAK:

Kike Amonarriz Gorria	Pilar Kaltzada Gonzalez
Itsaso Andueza Fernandez	Elena Laka Muñoz
Iban Arantzabal Arrieta	Miren Elixabete Larrinaga
Joseba Arruti Lafuente	Artetxe
Lourdes Auzmendi Aierbe	Joseba Lozano Santos
Martin Auzmendi Aierbe	François Maitia
Miren Azkarate Villar	Koldo Martinez
Francisco Javier Azpiazu Lasuen	Urionabarrenetxea
Mikel Belasko Ortega	Iñaki Martinez de Luna Perez de
Maren Belastegi Guridi	Arribas
Garbiñe Biurun Mancisidor	Mertxe Mugika Balanzategi
Allande Boutin	Joxean Muñoz Otaegi
Jasone Cenoz Iragi	Eneko Oregi Goñi
Maite Etxaniz Balentziaga	Xabier Paya Ruiz
J. Iñaki Etxezarreta Alberdi	Carlos Ruiz Gonzalez
Ramon Etxezarreta Aizpuru	Pello Salaburu Etxeberria
Aizpea Goenaga Mendiola	Jon Sarasua Maritxalar
Maite Goñi Eizmendi	Pablo Suberbiola Unanue
Jokin Gorozika Bidaurrezaga	Kirmen Uribe Urbietta
Itziar Idiazabal Gorrotxategi	Miriam Urkia Gonzalez
Jone Miren Hernandez Garcia	Vanessa Vélez De Pablos
	Xarles Videgain

### EUSKO LEGEBILTZARRAREN PROPOSAMENEZ IZENDATUAK:

Lorea Bilbao Ibarra	Garbiñe Mendizabal Mendizabal
Paul Bilbao Sarria	Xabier Olabarrieta Arnaiz



## **EUSKARA 21 BATZORDE-ATAL BEREZIA**

(2016ko apirilaren 29a)

Patxi Baztarrika Galparsoro,  
Hizkuntza Politikarako  
sailburuordea, Batzorde-atal  
Bereziko presidentea

Iñaki Martinez de Luna Perez de  
Arriba, Batzorde-atal Bereziko  
zuzendaria

Xabier Aizpurua Telleria

Kike Amonarriz Gorria

Mikel Arregi Pérez

Arantza Aurrekoetxea Bilbao

Lourdes Auzmendi Aierbe

Martin Auzmendi Aierbe

Miren Azkarate Villar

Koldo Biguri Otxoa de Eribe

Lorea Bilbao Ibarra

Paul Bilbao Sarria

Allande Boutin

Jasone Cenoz Iragi

Ana de Castro Rubalcaba

Amaia Elizagarate Sagastibeltza

Xabier Erize Etxegarai

Maite Etxaniz Balentziaga

Ramon Etxezarreta Aizpuru

J. Iñaki Etxezarreta Alberdi

Aizpea Goenaga Mendiola

Jokin Gorozika Bidaurrezaga

Mikel Irizar Intxausti

Lionel Joly Zharrase

Pilar Kaltzada Gonzalez

Odile Kruzeta Olañeta

Josu Labaka Zuriarrain

Elena Laka Muñoz

Miren Elixabete Larrinaga

Artetxe

Igone Martinez de Luna Unanue

Garbiñe Mendizabal Mendizabal

Mertxe Mugika Balanzategi

Itziar Nogeras Berra

Eneko Oregi Goñi

Mikel Pagola Tolosa

Carlos Ruiz Gonzalez

Pello Salaburu Etxeberria



Jon Sarasua Maritxalar  
Iñaki Ugarte Rekarte  
Kirmen Uribe Urbieta  
Ana Urkiza Ibaibarriaga


Xarles Videgain  
Jorge Giménez Bech,  
Batzorde-atal Bereziko idazkaria

**Hauetz gain, ondorengo hauek ere, Euskararen Aholku Batzordeko kide ez izanik ere, ekarpenak egin dituzte:**

Agirre Pinedo, Amaia  
Azkona Huércanos, Iñaki  
Etxebarria Zamora, Aitor  
Igartua Ugarte, Iván  
Isasi Balanzategi, Xabier  
Larrinaga Larrazabal, Asier

Lertxundi del Campo, Koikili  
Mendizabal Altuna, Jasone  
Segura Cobo, Juan Luis  
Zarate Sesma, Jon  
Zupiria Gorostidi, Bingen





PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea  
eta Euskararen Aholku Batzordeko  
Euskara 21 Batzorde-atal Bereziko presidentea

## HITZAURREA

### **EUSKARAREN GARAPEN IRAUNKORRA HELBURU, ELKARLANA MAKULU**

Aitortu behar dut bereziki pozgarria zaidala «Eta hemendik aurrera zer?» dokumentuaren aurkezpen hitzaurrea idaztea, bai Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde-atal bereziaren buru naizenez, eta baita ere Hizkuntza Politikarako sailburuorde naizenez. Oso aberatsa izan baita dokumentu honen behin betiko bertsiora iristeko askoren artean egin dugun bidea, eta zinez konbentziturik bainago datozen bi hamarraldietan euskararen erabilera sendotu eta areagotzeko ibilbidean argi-iturri, biderakusle eta askotarikoen bilgune izango dela. Horiexek dira handik eta hemendik, hangoek eta hemengoek, batzuek eta besteek jada aitortzen dizkieten ezaugarriak, dokumentua egiteko prozesuari nahiz dokumentuaren edukiari berari.

Kontsentsuzko dokumentua da, horrek esan nahi duen guztiarekin: kontsentsutik eta kontsentsurako egina, askotarikoen arteko eztabaidari eta askotarikoen ekarpen eta eskuzabaltasunari esker.

Politika publikoen arrakastarako oro har, eta bereziki hizkuntza politikaren zilegitasun eta eraginkortasunerako pisuzko bermea adostasun sozial eta politiko zabala den konbikzioa dago «Eta hemendik aurrera zer?» dokumentuaren abiaburuan. Hori horrela izanik, nahitaezkoa zen dokumentua bera ere kontsentsuzkoa izatea, eta prozesu parte hartzaile ireki baten emaitza. Hori ahalbidetzeko ahaleginak eta bi egin ditugu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, eta neurri bereko erantzuna eman dute Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde-atal bereziko kide guztiek. Hasiera beretik aitortu eta azpimarratu nahi ditut kide hauen guztien jarrera baturagile eta parte hartze eredugarriak.

Emaitza bera bezain garrantzitsua izan ohi da sarri askotan emaitza eraiki arteko prozesua. Beste horrenbeste esan liteke kasu honetan ere. 2014ko azaroaren 28a zen. Euskara 21 Batzorde-atal bereziak batzarra zuen, eta, beste zenbait aztergairen artean, ESEPen jasotako euskararen gaineko diagnostikoa abiaburu hartuta, diagnostiko hartan sakontzeko helburuarekin ildo estrategikoei buruz egindako AMIA onartu zuen, ekarpen ugari eta parte hartze zabalaren emaitza hura ere. Aipatu AMIA onartzearekin batera, Euskara 21 Batzorde-ataleko hainbat kidek hala eskatuta, konpromisoa hartu nuen «eta hemendik aurrera zer» galderari erantzun-go ziokeen dokumentu bat prestatu eta aurkezteko. 2015eko uztaileko batzarrean aurkeztu nuen hitzemandako dokumentua, eta dokumentuaren bokazioa behin betikoa ez baizik eta eztabaidara eta adostasunak bilatzera irekia izatea zenez, batzarrean bertan eztabaidatzeari ekitearekin batera erabaki zen ekarpen idatziak egiteko epea irekitzea. Hogeita hamalau ekarpen idatzi jaso dira. Euskara 21 Batzordeko kide ez direnen aldetik zortzi ekarpen jaso dira. Ekarpen idatzi horietako asko Euskara 21 Batzorde-atalaren eztabaida batzarretan ahoz ere azaldu izan dira, eztabaidari bide emateko. Euskara 21 Batzorde-atalak hainbat batzarretan eztabaidatu du, eta, azkenean, 2016ko apiril amaieran, eztabaidetan eta ekarpenetan azaldutako hainbat ikuspuntu, proposamen eta ñabardura kontuan hartuz osaturiko dokumentua jarri genuen

Euskara 21 Batzorde-atalaren esku. Hura bai, hura bazen behin betiko (bigarren) bertsioa. Integrazio ahalegin zintzo baten emaitza. Euskara 21 Batzorde-atal bereziaren dokumentua, jada: aho batez onartua. Geroago, maiatzaren 11n Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak ere aho batez onartua. Hori da ondorengo orrialdeetan jasotzen den dokumentua.

Dokumentu horrek, beraz, eztabaida prozesuan parte hartu duten askoren proposamenak integratu ditu, 2014ko azaroan aurkezturikoak zituen ezaugarriei eta edukiei eutsiz, baina ekarpen berriekin argiro aberastuz. Hasierako dokumentu hura prozesuan zehar azaldutako ekarpenen eskutik berritu eta osatzeko lanean, Xabier Erize soziolinguistaren laguntza aberatsa izan dugu. Espresuki eskertu nahi dut bere ekarpen garrantzitsua. Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde-atalaren baitan mahairaturiko ekarpen ugarien integrazio lana, Erize eta HPSko Zuzendaritzako kide garenon arteko elkarrizketa eta lankidetzan taxutzeko zoria izan dugu.

Parte hartze zabala eta ordu luzetako eztabaida izan dituen prozesuaren emaitza da, beraz, «Eta hemendik aurrera zer?» dokumentua. Gogoeta partekatu bat da, Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde-atalean eta batzordetik kanpo ere garatu den gogoeta bat. Adostasun sozial eta politikoa indarberritzea du jomugan, hasieran esan bezala askotarikoen arteko adostasun sozial eta politikoa nahitaezkoa baita euskara biziberritzeko prozesuan eraginkortasunez aurrera jarraitzeko. Atzera ez, aurrera egin behar da, eta aurrera egiteko gizartearen eta herritarren inplikazioa, protagonismoa, adostasun behar bestekoa behar dira nahitaez. Eta, jakina, adostasun sozial eta politikoan ezin da atzera egin; egin behar dena da, orain arteko adostasuna indartu, zabaldu eta areagotu, atzerantz egin gabe. Hori da dokumentu hau, adostasun ahalegin baten emaitza; eta horregatik da, hasieran esan bezala, kontsentsuzko dokumentua, elkarlanaren fruitua.

Etorkizunaz dihardu, ez iraganaz. Euskararen garapen iraunkorra du helburu, euskararen hazkunde jarraitua hazkunde iraunkor izan dadin. Duela hogeita hamabost urte ez bezala, EAeko ikuspegitik begiratuta bederen, bizpahiru belaunalditara begira jarrita jokoan daukaguna ez baita euskararen biziraupena, bizi-indarra baizik. Hizkuntza-erabileren plazan —plaza horretan jokatzen baita hizkuntzen partida— euskara hizkuntza adin nagusikoa izatea, ez subordinatua; eta gaur egungo euskara eta gaztelaniaren arteko desoreka ez kronifikatzea. «Garapen iraunkorraren» kontzeptuak, zentzu bete hartzen du gizartean gertatu diren eta gertatzen ari diren aldaketen ondorioz, eta euskarak azken hiru hamarraldietan izan duen hazkundearen ondorioz erronka berriak ditugunean aurrez aurre. «Garapen iraunkorra» helburu izateak zentzu bete hartzen du euskara hizkuntza bizia izateko baldintzez ari garela, biziraupenetik bizi-indarrerako ibilbidea egiteaz ari garela, gero eta gehiagok gero eta gauza gehiago kontatzeko ohikotasunez erabiltzen duen hizkuntza izateaz ari garela, eta ari garela euskara gero eta gehiagoren bigarren hizkuntza izateko bidean aurrera jarraitzeaz, baina lehen hizkuntza izatearen posizioan indarririk galdu gabe eta pixkanaka leku handiagoa irabaziz.

Berritzailea da. Ausardiaren eta zuhurtziaren uztardura du ezaugarri, errealitatea oso aintzakotzat hartuz proposatzen duelako aurrerabidea, errealitatea mozarrotu gabe bere horretan, etsipenik gabe, aitortuz. Aurrerabidean, helburu egingarriak proposatzen ditu. Egingarritasuna bera da ausardiaren ezaugarri hizkuntza politikan, egingarritasunean oinarrituriko hobekuntza eta aurrerabidea baita euskara biziberritzen jarraitzeko prozesuaren eraginkortasunerako baldintza. Ausarta bezain zuhurra, zuhurra bezain ausarta. Frustrazioa baitakar zuhurtziarik gabeko ausardiak; etsipena baitakar ausardiarik gabeko zuhurtziak.

Errealitateari erreparatzearen lekuko, besteak beste EUSTATen proiektzio demografikoak kontuan hartuz HPSk datozen hogeitreen miran 2036rako egin duen proiektzio demolinguistikoa jaso-

tzen du dokumentuak. Ondorengo lau faktoreon gaineko proiektzioa da: hiztun kopurua (euskaldunak, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak) adina ere kontuan harturik, lehen hizkuntza, hezkuntzako hizkuntza ereduaren bilakaera eta helduen euskalduntzearen ekarria. Hizkuntza politikan «nahi» izatea bezain garrantzitsua da «ahal» izatea, eta «ahal den hori» definitzerakoan oso kontuan hartzekoak dira gizartearen beraren bilakaera-aukerak, hots, bere aldaketa-aukerak ez ezik baita aldaketarako dituen barne-mugak ere. Proiektzio demolinguistikoak inplikazio politiko bistakoak ditu, 2036rako irudikatzen den eszenarioa gauzatuko bada nahitaezkoa baita gutxienez orain arteko ahalegin politiko-instituzionalari, gizarte-ekimenari eta gizartearen inplikazioari eustea. Proiektzio demolinguistikoarena berrikuntza nabarmena da, halakorik ez baitugu ezagutzen gure inguru hurbilean.

Dokumentua ez da hutsetik abiatzen. Iraganeko gogoeta eta adostasunak oso aintzakotzat hartzekoak dira, eta haien arrastoan dator dokumentu hau. Hor dugu, esaterako, «Euskara 21. Itun berri baterantz» dokumentu mugarrria. «Eta hemendik aurrera zer?» dokumentuan datozen hogeitau urteetarako (2016-2036) hizkuntza politikaren oinarriak, batetik, eta lehentasunen markoa, bestetik, finkatzen dira (seguru hogeitau urteen joanean neurri batean eguneratu beharko direnak, baina, nolana ere, helduleku direnak besteak beste sektore publikoa, ekimen sozialaren sektorea eta sektore pribatua uztartzeko ahaleginean). Ez da, beraz, plangintza-dokumentua bat, ez da neurrien katalogo bat. Ez dator, adibidez, ESEP ordezkatzera. Esandakoa da. Eta han eta hemen egin beharko ditugun plangintza-dokumentuetarako oinarri izatea da bere eginkizunetarako bat.


Euskara biziberritzeko langintzan jendearen protagonismoa nabarmentzen du dokumentuak, gizartearen inplikazioaren garrantzi erabakigarria, herri-erakunde eta askotariko eragileen funtsezko egitekoen eta erantzukizunen kalterik gabe, noski. Herriarren eta hiztunen aktibazioa sustatu eta babestea giltzarri

baitugu, herritarren nahia giltzarri dugun bezala. Izan ere, Joshua Fishmanek esan bezala, «gure hizkuntzak eduki dezakeen berme bakarra gu geu gara».

Bizikidetzari, aukera-berdintasunari, ekitateari eta askatasunari lotzen zaie euskara, eta euskara nahiz gaztelaniaren hizkuntza-hautuaren errespetu betean irudikatzen da euskararentzako eraiki nahi den etorkizuna. Euskararena gizarte-bizikidetzaren muinean kokatzen den auzia izanik, beharrezkoa dugu erronkei eraginkortasunez aurre egingo badiegu gure gizartearen hizkuntza-hitzarmena indarberritzea, herritarren atxikimendua elikatuz, eta adostasun sozial eta politikoa sendotuz. Bide horretan uste izatekoa da hizkuntza-bizikidetzarako onuragarria litzatekeela datozen bi hamarraldietan aurrerapauso esanguratsuak ematea gure gizartearen gehiengo zabal batek bere egin ditzakeen honako printzipio bion garapen progresiboan: «hemengo bi hizkuntzak ulertu, bakoitzak gogokoen duena erabili dezan», eta «euskararen erabilera aktiboki sustatu gizarte-bizitzako arlo guztietan, euskara ohikotasunez erabiltzen den hizkuntza izan dadin, hizkuntza ofizialen arteko gaurko desorekatik oreka handiagorantz».

Argitalpen honek baditu, «Eta hemendik aurrera zer?» dokumentuaz gain, bi eranskin, biak interes handikoak eta aipatu dokumentuaren barruan aipatuak direnak: batetik, «Euskararen proiektzioa 2036», Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlanetako Zerbitzuak egina, eta hiru eszenario aurreikusten dituen (horietatik bi EUSTATen proiektzio demografiko ezberdinetan oinarrituak eta bestea RECLUS ereduaren arabera moldatua); eta, bestetik, «Euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarriak», Iñaki Martínez de Luna soziolinguista eta Euskara 21 Batzorde-ataleko zuzendariaren zuzendaritzapean burututako EGOD Egitasmoa (Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoen Lanketa) iturburu duena, eta EGODen barruko ikerlanetik eratorritako informazioarekin HPSk moldaturiko dokumentua.

Pozarren aitortu eta eskertu nahi dut Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde-atal bereziko kideek izan duten parte hartze aktiboa, eta baita ere, jakina, Batzorde-atal horretako kide izan gabe dokumentu honen gogoeta prozesuan aritu direnena: ekarri aberatsa egin eta elkarlanerako jarrera agerian jarri, biak egin baitituzte. Esker ona, halaber, Euskararen Aholku Batzordearen Osokoaren kideei, eta, lehenago esandakoagatik, Xabier Erizeri eta HPSko Zuzendaritzako kideei. Elkarlanetik sortua, elkarlanerako tresna eraginkorra izatera deiturik dago «Eta hemendik aurrera zer?».



# ETA HEMENDIK AURREA ZER?

EUSKARAREN GARAPENAREN IRAUNKORTASUNA EDO  
«DABILLAN HARRIARI ETZAIKA GOROLDIORIK LOTZEN»

Erabiltzen ez den Euskara  
hil egiten da  
mugitzen ez den bihotza  
hil egiten den bezala.

Ez da ezergatik, baina  
isiltzen duzun euskara  
hiltzen duzun euskara da.

BITORIANO GANDIAGA





## ETA HEMENDIK AURRERA ZER?<sup>1</sup>

*Dokumentu honetako gogoetan sartu aurretik, euskarari buruz ari garela inondik ere gustukoa ez dugun arren, baina gure ikuspuntua azaltzeko lagungarri zaigunez, maiz entzuten den esamolde bat hartuko dugu hizpide: euskararen «salbazioa».*

*Euskara, baina, ez da «salbatuko» —horra gustuko ez dugun hitza— Euskal Herriaren berezko hizkuntza izateagatik. Euskara ez da salbatuko euskaldunok erabiltzeko eskubidea izateagatik eta haren aldeko politikak eta askotariko ekintzak garatzeagatik. Ez behintzat horregatik bakarrik.*

*Euskara «salbatuko» da, eta hizkuntza bizia izango da, euskaldunok hala nahi dugulako, euskaldunok euskara nahi eta behar dugulako. Horrek ematen dizkio zilegitasuna eta hauspoa euskara salbatzeko jardunari.*

*«Nahi» izatea, «beharrezko eta gogoko» sentitzea eta halatan hartzea: horra gako nagusiak.*



- 
1. 2015eko uztailaren 10ean Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 Batzorde-atalaren aurrean «Eta hemendik aurrera zer?» dokumentua aurkeztu zuen. Dokumentu haren gainean aipatu Batzorde-atalean egindako eztabaida eta ekarpen ugariak kontuan hartuz osatua da hasierako dokumentu hura oinarri duen txosten hau, beraz, dokumentu hura eta hainbat ekarpen berri integratzen dituena. Patxi Baztarrika sailburuordeak eta Xabier Erize soziolinguistak landu eta idatzi dute azken bertsio hau, Euskara 21 Batzorde-atalak, aho batez, 2016ko apirilaren 28an onartu zuena, eta Euskararen Aholko Batzordeak maiatzaren 11ko Osoko Bilkuran, eta aho batez baita ere, bere egin zuena. Euskararen proiektioari dagokion eranskina, berriz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlanetako Zerbitzuak prestatua da.

# 1

## ATARIKOAK

Euskara 21 Batzordeak Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP)<sup>2</sup> diagnostikoan sakontzea helburu hartuta osatua den AMIAren<sup>3</sup> gaineko eztabaida egin zuenean, aipatu Batzordearen aurrean, kide batzuek hala proposatuta, konpromisoa hartu zuen Hizkuntza Politikarako sailburuordeak «eta orain, 15-20 urteko perspektiban, zer?» galderari erantzun bat emango zion txostena idazteko. Konpromiso hura betetzera zetorren txostena egin zuen, eta haren gainean Euskara 21 Batzordean egindako gogoetak kontuan hartuz osatua da esku artean dugun txosten hau, euskararen garapen iraunkorraz diharduena.

Gogora dezagun *garapen iraunkorraren* definizio klasikoak pertsonen beharrak, gizartea, ingurumena eta ekonomia lotzen dituela:

«Garapen iraunkorra garapen mota bat da, oraingo beharrei erantzuten diena baina ez dituen ondorengo belaunaldienak eragozten. Honi bi kontzeptu atxiki zaizkio: “beharren kontzeptua”, batez ere pobreenen oinarritzko beharrei lehentasuna ematea, eta gure teknikak eta gizarte organizazioaren “mugak” duten eragina ingurumenaren gaitasunean oraingo eta geroko beharrei erantzuteko»<sup>4</sup>.

- 
2. Eusko Legebiltzarrak 2013ko irailaren 11n berretsi egin zuen ESEP, eta «aipatu planaren helburu, neurri eta ekintzak bere» egin zituen.
  3. Euskararen Aholku Batzordea. (2015). *Euskara sustatzeko ekintza plana. Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
  4. Garapen iraunkor. (2015). In *Wikipedia* [euskaraz]: online. Jatorrizko bertsioa ingelesez: World Commission on Environment and Development. (1987). *Our Common Future*.



Euskararen kasurako paralelismoa eginez, eta paralelismo hori zi-  
legi dela uste dugu, «euskararen garapen iraunkorra» diogunean  
euskaldunen eta, oro har, euskal herritarren behar linguistikoei  
buruz arituko gara, euskara hizkuntza bizia izateko baldintzez ari-  
tuko gara, eta, aldi berean, euskaldunen eta euskal herritarren  
behar linguistikoak, gaurkoenak ez ezik etorkizunekoak ere, ase-  
tzeko eraz arituko gara, gaur egungo euskal gizartearen «organiza-  
zioak» (errealitateak) ezartzen dizkigun «mugak» kontuan hartuta.

Bizitzarako eta bizikidetzarako hizkuntza bizia izatea da, honeta-  
rako eta hartarako erabilia eta gero eta herritar gehiagoren ohiko  
hizkuntza izatea da euskarak garapen iraunkorrerako duen ibilbidea.

Beraz, terminologia argituz, txosten honetan «euskararen egoera»  
edo halakorik esaten dugunean, irudi bat erabiltzen ari gara, eta  
garbi dugu euskaldunen eta euskal herritarren behar eta nahi lin-  
guistikoei buruz ari garela, ez euskarari buruz abstraktuan.

Txosten honen abiaburutzat *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana*.  
*Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua*<sup>5</sup> dokumen-  
tua hartu da, beste zenbaiten artean. Eta horrekin batera, *Euska-  
ra 21. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak*. *Itun*  
*berritu baterantz* txostena<sup>6</sup> ere dokumentu honen oinarrian dago.  
Gogora dezagun, bide batez, aipatu *Itun Berritu Baterantz* txoste-  
nean lehenetsuneko hamalau lan-ildo jasotzen direla<sup>7</sup>.

- 
5. Euskararen Aholku Batzordea. (2015). *Euskara sustatzeko ekintza plana. Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
  6. Euskararen Aholku Batzordea. (2009). *Euskara 21. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berritu baterantz*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
  7. *Euskara 21. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berritu baterantz* dokumentuan XXI. mende hasierako hizkuntza politikarako lehenetsuneko 14 ildo hauek identifikatu ziren:



Eskertzen dira txosten honen idazketari ekin aurretik Euskara 21 Batzordeko hainbat kiderengandik jasotako ekarpenak. Eskertzen dira, halaber, txostenaren lehenengo bertsioa Euskara 21 Batzordean aurkeztu ondoren hainbat adituk (Euskara 21 Batzordeko kide direnak zein ez direnak) egindako ekarpenak. Horietako asko eta asko jasota gelditu dira orrialde hauetan.

Nolanahi ere, hasiera beretik esanda gera bedi dokumentu honen helburua dela euskararen hazkundearen iraunkortasuna eta bizi-indarra ahalbidetzeko datozen bi hamarraldietan garatu beharreko hizkuntza politikaren oinarriak eta lehentasunen markoa finkatzea. Kasu honetan, helburua ez da, beraz, ekintza programa zehatz bat proposatzea.

Testu hau politika publikoen esparruan kokatzen da batez ere. Politika publikoak herri-aginteen jarduerak dira (ekintzak gehi ekintza

- 
1. Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
  2. Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnagune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
  3. Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.
  4. Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
  5. Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez.
  6. Elebitasun pasiboa helduen munduan —eta gutxieneko helburutzat— areagotzea eta prestigiatzea.
  7. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
  8. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.



horiek erabakitzeke prozesuak), gizarteko arazoak konpontzeko asmoz eginak, eta legeen eta ohitura sozialen printzipioetan oinarrituta daude<sup>8</sup>. Zehazki, politika publikoak, arrakastatsua izango bada, honako ezaugarri hauek izan behar ditu: gizartearen arazoak zatiketa politiko edo sozialik eragin gabe konpontzea, eta herritarren parte-hartze aktiboa zein prozesu demokratikoak sustatzea<sup>9</sup>; hain zuzen ere, horietan dira euskararen sustapenean bilatzen diren ezaugarriak.

- 
9. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.
  10. Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.
  11. Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozenen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.
  12. Euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.
  13. Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiez baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.
  14. Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila.
  8. *Characteristics of Successful Public Policy*. (2015). In Norwich University, *Master of Public Administration Online*. Online eskuratua. Eta: Public Policy. (2015). In *Wikipedia*.
  9. *Characteristics of Successful Public Policy*. (2015). In Norwich University, *Master of Public Administration Online*. Online eskuratua.



Kontuan izan behar da gizarte baten bilakaera linguistikoa faktore askoren emaitza dela, ez bakarrik politika publikoen emaitza. Politika publikoak faktore horietako bat dira, ezinbestekoak eta eragin handikoak, ezbairik gabe, baina ez faktore bakarra; eta politika publikoek berezko mugak dituzte gizartean eragiterakoan<sup>10</sup>. Berdintsu gertatzen da gizartearen beste esparru batzuetan ere. Osasunaren esparruan, adibidez, populazioaren ohitura osasungarriak, ariketa fisikoa, elikadura osasuntsua edo tabakismoaren jaitsiera sustatzea helburu duten ekimenak garatzen direnean ere, ekimenak ekimen, azkeneko hitza —esate baterako, platera janari koipetsuez betetzea edo ez— herritarrek dute, ez Gobernuak.

Gizartean, sektore publikoarekin batera, hor ditugu ekimen sozialen sektorea, sektore pribatua eta herritarrak oro har, eta elkarrekiko orekan egon behar dute, bakoitza bere erantzukizunekin eta bere eginkizunekin<sup>11</sup>. Bestela esanda, administrazioek sustapen lana gauzatu eta gizarteari lagundu egin behar diote, aukerak sortu behar dituzte, baina hizkuntzaren biziberritzea gizartean ez dute administrazioek gauzatuko, ez behintzat beraiek bakarrik, ezta beraiek nagusiki ere; hori gauzatzea gizabanako eta gizarte osoaren zeregina izango da batez ere, dokumentu honen 8. atalean ere aipatzen denez. Euskara biziberritzeko, beharrezkoa da norbanakoaren, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartzea eta elkar elikatzea.

Bistan denez, errespetua, babesa eta garapena behar dituen ondare positibotzat hartzen da txosten honetan euskara. Indarrean dagoen araudiak ere hala egiten du. Esate baterako, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Kartak dioenez, euskararen eta antzeko hizkuntzen «hiztunen eta gainontzekoen arteko ber-

---

10. The Limits of Public Policy. (2015). In *The Public Policy Cycle*. Online eskuratua.

11. Mintzberg, H. (2015). Time for the Plural Sector. *Stanford Social Innovation Review*. Online.



dintasuna lortzeko asmoz edo hizkuntzon egoera berezia kontuan izan dadin hartutako aldeko neurri bereziak, ez dira indar handi-goko hizkuntzetako hiztunen kaltetan egindako bereizkeriatzat hartuko»<sup>12</sup>.

---

12. Council of Europe-Conseil de l'Europe. (1992). *European Charter for Regional or Minority Languages-Charte européenne des langues régionales ou minoritaires. Basque version. Unofficial translation.* Strasbourg: autorea.

# 2

## URRATU DUGUN BIDEA

Azken hogeita hamabost urtean euskarak aurrerapen eskerga izan du Euskadiko Autonomia Erkidegoan: herritarren artean 300.000 hiztunetik gora irabazi ditu, eta, halaber, gizartean historikoki arrotz eta debeku izan dituen erabilera esparruetan tokia hartu du, neurri ezberdinetan. 300.000 hiztun berri izatea lorpen izugarria da mundu mailan. Hemengo esperientzia erreferentzia da beste hizkuntza askoren biziberritzeko prozesuetarako nazioartean.

Hala ere, egoera normalizatura iristeko bide luzea du oraindik euskarak, eta etorkizunean atzera ere egin lezake, bere hazkundeak gizartean irmo sendotzen jarraitzen ez badu. Izan ere, euskara eta gaztelania ofizialak dira EAEn, erabilerarako legezko berdintasuna dute biek aitortua, baina egoera soziolinguistiko desorekatuan bizi dira: sendotze-bidean baina ahul dago euskara; eta sendo, gaztelania. Horrekin batera, beharrezkoa da egin dena aztertzea, indarguneak berrindartzeko eta hainbat esparrutan dauden ga-beziak gainditzeko edo zuzendu beharrekoak zuzentzeko.

Lau hamarkada hauetan izandako biziberritzeari esker, eta euskararen hil-kanpaiak historian zehar askotan iragarri izan diren arren<sup>13</sup>, esan genezake bizpahiru belaunalditarako, gutxienez, biziraupena ziurtatua duela euskarak; ez, ordea, bizi-indarra. Horregatik, gaurko eta etorkizuneko gizartean bizi-indarra hartzea eta sendotzea du orain erronka —hizkuntza subordinatua beharrean, adin nagusikoa izatea—, eta erabilera da horretarako giltzarri nagusi eta erabakigarria.

---

13. Ikus, esate baterako: Erize, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. *Soziolinguistika Historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.





Inoiz baino gehiago, euskararen etorkizuna herritarron esku dago. Batik bat euskal hiztunen esku, baina baita egun oraindik elebakar direnen esku ere, horiek hartzen dituzten euskararekiko jarrerek eta egiten dituzten urrats praktikoek ere (seme-alabei euskarazko etorkizuna bermatzeko neurriak hartzea, adibidez) baldintzatu egingo baitute euskararen behin betiko indarberritzea.

## NAHIA GILTZARRI

Euskarak EAEn lege babesa, hizkuntza politika eta herritarren borondatea<sup>14</sup> izan ditu alde XX. eta XXI. mendeen arteko urtealdi honetan, eta hiru faktore horien uztardurak ahalbidetu du, neurri handi batean, gaur bizi duen pizkundera.

Administrazio, hezkuntza eta leku ofizial guztietatik kanpo egonaztetik legezko ofizialtasunera, eta politika publikoan jazarria edo baztertua egotetik sustatua izatera igarotzeak arnasa eman dio euskarari. Baina euskararen biziraupenean faktore giltzarriak izan bada, euskaldunen borondatea izan da.

Beraz, euskarak biziraupenetik bizitzera, bizitzeko guztiz balio izatera igarotzeko daraman bide honetan bizi-indarra sendotzen jarraituko badu, nahitaezkoa izango du gizartearen borondatea hori izatea eta, horrenbestez, herritarren jarrera praktikoa eta erabilera borondate horrekin bat etortzea.

---

14. Txosten honetan hizkuntzen bilakaeraren faktore objektiboak zein subjektiboak aztertzen dira, bi aldeak azertu behar baitira dinamika soziolinguistikoak argitzeko lanetan, Richard Y. Bourhis psikologo sozial eta soziolinguistaren aholkularitza izan zuen Euskal Herriko I. Inkesta Soziolinguistikotik egiten ari garen bezala. Faktore subjektiboak buruz, ordea, gutxiago dakigu faktore objektiboak buruz baino, eta uste dugu ematen zaien baino garrantzi handiagoa eman beharko zaiela datozen urteotan. Ikus: Bell, A. (2014). *The guidebook to sociolinguistics*. Chichester, West Sussex (EB): Wiley Blackwell; Genesee, F. eta Bourhis, R. Y. (1988). Evaluative reactions to language choice strategies: the role of sociostructural factors. *Language & Communication*, 8-3/4, 229-250; Giles, H. eta Johnson, P. (1987). Ethnolinguistic identity theory: a social psychological approach to language maintenance. *International Journal of the Sociology of Language*, 68, 69-99; Sánchez Carrión, J. M. «Txepetx». (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las Lenguas*. L. g.: autorea.



Ez da hori faktore bakarra; bai, ordea, guztiaren enborra. Batetik, euskal gizartearen nahi horrek egiten duelako zilegi euskara sustatzeko hizkuntza politika aurreragarriak bultzatzea, erabilerarako baldintzak sortzea eta pedagogia soziala egitea hizkuntzen inguruan. Izan ere, herri-aginteen obligazioa baita herritarren borondateari aterabidea ematea; eta herri-aginteena ez ezik, era guztietako talde eta erakundeen erantzukizuna edo ardura baita herritar guztien hizkuntza-eskubideak babestearen alde egitea. Betiere euskara sustatzeko herritarren nahiari babes ematen dioten legeen eta ohituren printzipioei eutsiz, politika publikoei buruzko aipamenean ikusi dugunez. Azken batean, hizkuntza politika demokratikoarekin herritarren borondatea bera elikatzen baita.

*Nahia*, beraz, ez da hutsetik sortzen. Nahia bera sentitzeko ere, hainbat baldintza bateratu behar dira, txosten honetan zehar ageri denez: euskara edo hizkuntzak (bere horretan, berdintasunean) maitatzea, hizkuntza praktikoa eta eroso izatea, erabilera-eremuak izatea, ondo ikusia egotea eta aintzatetsia izatea (euskara bera zein euskaraz aritzea).

V. Inkesta Soziolinguistikoaren aurkezpenean *laburpenaren laburpen* gisa esandakoa datorkigu gogora: «inoiz ez bezala eta inoiz baino neurri handiagoan dago euskararen etorkizuna euskal herritarren esku, eta bereziki euskaldunen esku». Joshua Fishman-ek esan zuenez, «gure hizkuntzak eduki dezakeen berme bakarra gu geu gara»<sup>15</sup>. Ideia horrekin, jendearen protagonismoa nabarmendu nahi dugu, beste inoren —guztien— egitekoak alboratu gabe, bitan denez. Izan ere, euskararentzako nahi eta beharko genukeen egoeratik urrun baldin bagaude ere, inoiz ez du izan gure hizkuntzak gaur egun duen tokia gizarte bizitzan. Baina —ditxosozko baina— etorkizuna ez dago idatzita, nekez aurreikus liteke, hain zuzen ere, inoiz baino neurri handiagoan dagoelako belaunaldi

---

15. Fishman, J. A. (2001). *Can threatened languages be saved?* Clevedon, EB: Multilingual Matters, 457. or.



berrien esku jasotakoa indartzea eta hobetzea... edo atzera egitea. Belaunaldi berriek eta etorkizunekoek erabakiko dute euskara erabili edo ez, euskara besarkatu —eta zein neurritan besarkatu— edo euskarari bizkarra erakutsi.

# 4

## ETORKIZUNeko GIZARTEA IRUDIKATUZ

Aldatu egin dira euskal gizartearen ezaugarriak, eta aldatu egin dira euskaldunen hizkuntza ezaugarriak, baita ezaugarri sozioekonomikoak ere, eta honek ondorioak izango ditu etorkizunean ere.

Euskal hiztun gehienak alfabetatu gabeak ziren lehen eta alfabetatuak dira orain, horietako asko eskolan eta unibertsitatean euskaraz heziak. Inoiz ez da izan gaur adina euskaraz alfabetaturik. Lau urtetik gorakoan artean jada ez dago euskaldun elebarririk. Euskal hiztunen artean, lehen gehienak ziren euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen zirenak, eta gaur egun gehiago dira gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak: asko ugaltu dira «erdal elebidun» deituak, trebetasun hartzaileetan (ahozkoa eta idatzizkoa ulertzen) euskaraz primeran moldatzen direnak, ez ordea trebetasun ekoizleetan (hitz egiten eta idazten). Oso desberdinak dira hiztunen ezaugarri soziolinguistikoak euskara familia eta ingurune euskaldun batean transmisio naturalez jasotutenean, edo familia eta ingurune erdaldunekoak izanik gerora (eskolan, heldutan) euskaldundu direnean. Adin talde guztietako euskaldunen artean, gehienek euskara zuten lehen hizkuntza; orain, aldiz, 40 urtetik beherako euskaldunik gehienek (% 54,8) gaztelania dute lehen hizkuntza. Euskararen hazkundeak halaberrez ekarritako ezaugarriak dira.

«Hiritartu» egin da euskal hiztunen komunitatea. Eta euskal gizartea bera ere, oro har, asko aldatu da denbora berean. Informazio eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) eta internetek erabat aldatu dute herritar askoren bizimodua, bereziki gazteena. Euskaraz hazi eta hezitako belaunaldiko gazte asko Euskal Herritik kanpora



doa, urrutiko herrialdeetara, eta aldi berean etorkinak datozkigu, gehienak 40 urtez azpikoak eta gaztelaniaz badakitenak. Berezi-ki gazteen bizi-giroan, bi hizkuntza ofizialak ez ezik, ingelesak ere toki garrantzitsua hartu du eta are garrantzitsuagoa hartuko du.

Euskararen hazkunde soziala nagusiki gazteen artean gertatu da, gertatzen ari da eta hala izaten jarraituko du, hots, era guztietako aldaketek gehien eragiten duten adin-taldeetan.

Proiekzio edo aurreikuspen demolinguistikoaz arituko gara segidan. Etorkizuneko proiektioen azterketa batek inplikazio «politiko» garrantzitsuak eduki ditzake herri aginteen zein askotariko gizarte eragileen lanari begira, oinarri materiala eskaintzen diela etorkizunari buruz ekintzak planteatzeko, dela egungo joerak indartzeko, dela beren hartan mantentzeko, dela haiek moteltzeko<sup>16</sup>.

Proiekzio batek, funtsean, orain arteko bilakaeraren datuetatik abiatu eta etorkizuneko eszenarioak irudikatzen ditu. Aurreko ataletan ikusi den bezala, euskararen azken hamarkadetako bilakaera positiboa ahalegin sozial handien emaitza izan da (norbanakoenak, herri aginteenak zein gizarte ekimeneko eragileenak), erresistentzia negatiboei gaina hartu eta euskararen grafikoaren kurba goranzko norabidean jartzeko adina indar izan dutenak.

Lerro hauetan aurkezten dugun euskararen etorkizunerako aurreikuspenen hipotesi nagusia da ahalegin edo energia sozial positibo indartsu horiei eutsiko zaiela 2036 arteko bilakaeran. Horri esker, euskararen aurreikuspenen kurbak goranzko forma hartzen segituko du; bestela, energia sozialak behera egingo balu, proiektioaren kurbak ere behera egingo luke. Bizikleta batean, hartutako

---

16. Ikus Marc Termote, Frédéric Payeur eta Normand Thibault-en azalpenak, Quebec-eko proiektio demolinguistikoei buruzko lan mamitsu batean aurkeztuak: Termote, M., F. Payeur-en eta N. Thibault-en laguntzarekin. (2011). *Perspectives d' molinguistiques du Québec et de la région de Montréal 2006-2056*. L. g.: Gouvernement du Québec.



abiadurari eutsi nahi bazaio, pedalei ematen segitu behar da, eta hanka altxatuz gero, momentuan geldituko litzateke bizikleta, inertziak metro bakar batzuetarako emango lioke, ez gehiago. Euskararen etorkizuneko aurreikuspenen kasuan, berdin: ahaleginen pedalei ematen segitu behar da. Beraz, proiektzio demologikoen helburua ez da konformismo pasiboan jaustea, baizik eta ekintza aktiboak planteatzeko oinarri material errealak finkatzea.

Ahalegin bat egin dugu, 2036an euskararen egoera EAEn nolakoa izango den irudikatzeko. Hemendik 20 urterako proiektzio hori egiteko kontuan izan ditugun faktoreak honako hauek dira: bilakaera demografikoa, hizkuntza gaitasuna, lehen hizkuntza, hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Faktore horiek kontuan hartu ditugu, hain zuzen ere, beroriek direlako —erabileraren eta jarreraren ondoan, noski— euskararen bilakaera sozialaren berri ematen dituguten elementu nagusiak (hiztunen kopurua, transmisioa familiar, eskolan eta heldutan).

Zuhurtziaz jokatu nahi izan dugu proiektzio hori egiterakoan, eta, horrexegatik, eszenario bakar batera mugatu ordez, hiru eszenario aurreikusi ditugu: bata, RECLUS ereduarena; eta beste biak, EUSTATen zazpi eszenario demografikoetako bitan (bigarrena eta laugarrena) oinarritzen direnak. Eszenario bakoitzaren xehetasunak «Euskararen proiektzioa 2036»<sup>17</sup> izenburua duen dokumentuan jasotzen dira. Jarraian, aipaturiko hiru eszenario horietako baten laburpena eskaintzen da. EUSTATen laugarren eszenario demografikoan oinarritzen dena da hori. Laburpena egiteko aukeratu dugun eszenarioa, hiruen artean, tartekoa da: ez altuena, ez apalena. Nolanahi ere, hiru eszenario horien arteko aldea txikia da.

Hel diezaigogun, beraz, proiektzio honen ezaugarri nagusien azalpenari.

---

17. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. (2016). *Euskararen proiektzioa 2036*. Argitalpen honen 1. eranskina.



EUSTATEk eginiko eszenario demografiko horren arabera hogeitau urte barru, zehatz esanda 2036an, EAeko biztanleak gaur egun baino 12.000 gehiago izango dira. Jaiotza-heriotza arteko saldoa negatiboa izango da, migrazio saldoa, aldiz, positiboa. Gaurtik 2036ra 8,6 puntu murriztuko da 25-49 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, eta, aldiz, 8,3 puntu hazi 50 urte edo gehiagokoa. Jaiotza-tasak zertxobait gora egin arren, 0-14 urte bitarteko gazteak gutxiago izango dira: %14,0 dira gaur egun, eta %13,3 izango dira 2036an, hots, gaur egun baino 14.500 gutxiago (gaur egun baino 0,7 puntu gutxiago). Epe ertainean, eskolako adinean dagoen biztanleria osoak beheranzko joera izango duela aurreikusten da.


Aurreikus liteke 2036an, EAeko euskaldunak %49,5 izango direla; euskaldun hartzaileak %16,7; eta erdaldunak %33,8. Kontuan izatekoa da, 2011ko datuen arabera, %36,4 direla euskaldunak; %19,3 euskaldun hartzaileak, eta %44,3 erdaldunak. Adinari dagokionez, 25 urtetik beherako herritarren %83,4 euskalduna izango da (gaur egun, %73,2) eta euskaldun hartzaileak %9,3 izango dira (gaur egun, %15,5); erdaldunak, berriz, %7,3 izango dira (gaur egun, %11,3). 25-49 urte bitartekoetan, %59,5 euskaldunak izango dira, eta euskaldun hartzaileak, %19,4; erdaldunak, berriz, %21,1 izango dira. Eta 50 urtetik gorakoen artean euskaldunen portzentajea heren bat eskas izango da (%28,9), euskaldun hartzaileak, %18,5; erdaldunak, berriz, %52,6 izango dira.

Lehen hizkuntzari dagokionez, euskara lehen hizkuntza dutenak %30,5 izango dira (gaur egun, %23,5). 24 urtetik beherakoen artean gertatuko da aldaketarik handiena: gaur egun %32,1ek du euskara lehen hizkuntza, eta 2036an, ia erdira iritsiko da (%48,8).

25-49 adin tartean, gaur egun %20,7 baldin bada euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa, 2036an heren batera iritsiko da.

Aldiz, 50 urtetik gorakoen artean euskara lehen hizkuntza dutenen kopurua jaitsi egingo da, gaur egungo %22,6tik %20,9ra.





Hezkuntzari dagokionez, honako bilakaera hau aurreikusten da, irakaskuntza ez unibertsitario osoko hizkuntza ereduetan: D ereduari arituko dira ikasleen % 81,3 (gaur egun, % 66,3); B ereduari arituko dira ikasleen % 16,5 (gaur egun, 18,6); A ereduari arituko dira ikasleen % 1,7 (gaur egun, % 14,5).

Helduen euskalduntzeari dagokionez, azkenik, heldutan euskalduntzen direnak urtean 4.500 inguru izango dira. Kopuru hau dagokie abiapuntua A2 maila edo txikiagoa izanik, B1 maila (Europako Markoaren arabera, «erabiltzaile independentea») edo handiagoa eskuratzen dutenei. Horrek esan nahi du gaur egungo euskalduntze erritmoari (4.577 urteko) eutsi egingo zaiola.



Bistan da: garai berriak, aukera berriak, muga berriak... erronka berriak, bereziki euskaldunen iturri diren familia bidezko transmisioan, euskararen irakaskuntzan eta helduen euskalduntze-alfabetatzean. Ondorioz, estrategiak ere egokitu egin behar.



# 5

## EUSKARAREN GARAPEN EDO HAZKUNDE IRAUNKORRA BERMATU

Euskararen biziberritzean urte hauetan guztietan metatu dugun esperientzia aintzat hartuz, hauxe da aurrera begira bermatu behar duguna: egindakoa finkatzea eta sendotzea, atzera-buelta eragozteak. Ez baita gutxi. Eta horrek lan aktiboa eskatzen du, inertiak ezer gutxi egiten du zeregin horretan, proiektioei buruzko atalean ikusi dugunez.

Euskararen hazkundean eskuratutako maila berri bakoitza hurrengo hazkuntzaldi baterako berme izatea lortu behar dugu; ezarritako mugari berri bakoitzak hurrengorako abiaburu sendoagoa ematea, 9. atalean ikusiko denez.

Horretarako funtsezkoa izango du euskarak gizartean esparru funtzional gutxienerako batzuk bereganatzea eta ziurtatzea, eta, aldi berean, hizkuntza nagusiarekin elkarbizitzen —gastelaniarekin edo frantsesarekin, alegia— beste esparru batzuk ere bereganatzea. Banaketa geografiko-soziolinguistikoa ere kontuan hartu beharko da, dagokion neurrian. Bereizi behar dira arnasmuneak diren eremu geografikoak, tarteko eremuak eta oso erdaldunak diren eremu geografikoak. Hiru eremu horietan, ezinbestean, hizkuntzen arteko banaketa sozio-funtzionala diferentea izango da. Euskarak eta erdarak, elkarrekin bizitzen ikasi behar dute, betiere hizkuntza bien iraunkortasuna bermatuz, eta elebidunek rol garrantzitsua dute bi hizkuntzen arteko elkarbizitzan.

Euskara biziberritzeko prozesuan ongi egindako gauzetan sakonduz, zuzendu beharrekoak zuzenduz eta gizartearen aldaketek



dakartzaten erronka eta behar berrietara egokituz jarraitu behar dugu aurrera egiten euskararen normalizaziorantz, hots, euskararen adin nagusitasunerantz. Horrenbestez, hurrengo bi hamarkadei begira, euskararen erabilera modu progresiboan hedatzen eta normalizatzen jarraitzea dugu erronka, helburu hartuz herritar elebidunez osatutako gizarte elebidunago batera gerturatzea, jakitun izanik ez direla denak neurri berean izango elebidun, eta oinarri hartuz bi hizkuntzen estatus-berdintasuna eta herritar guztien hizkuntza-eskubideen berdintasuna, ezein dela ere —gaztelania nahiz euskara— bakoitzaren hizkuntza hautua. Jakitun gara, halaber, etorkizuneko hizkuntza errealitatea testuinguru konplexuago batean kokatuko dela, 6. atalean ikusiko denez. Hortaz, bi hizkuntza ofizialak gutxienez ulertuko dituzten herritar eleanitzunez osatutako gizarte eleanitzago batera gerturatu nahi dugu, non euskararen erabilerak hazkunde iraunkorra izango duen.

Bidenabar, esan dezagun *hizkuntza-eskubideak* terminoak bi adiera izan ohi dituela: batetik, indarrean dagoen araudiak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak; eta bestetik, nahien adierazpen bat, *desideratum* bat, oraindik lege-arau ez dena. Bi adierak desberdinak dira. Desideratum mailan daudenak araudi mailako hizkuntza-eskubide bihurtzea, behar diren prozedura demokratikoen bidez egiten da, bestela desideratum mailan segituko dute.

Erronka horiek gauzatu ahal izateko, joandako hiru hamarkadetan euskarak izan duen hazkunde soziolinguistikoa *hazkunde iraunkor* bihurtzea da, beraz, datozen urteetan ziurtatu behar dugun dema.



## GURE HIZKUNTZA ANIZTASUNAREN KUDEAKETAN, EKITATEA OINARRI ETA BIZIKIDETZA HELBURU

Gure gizartea aniztuna da, eta aniztasun hori ezinbestez dugu aitortu eta errespetatu beharra, berez duen balio positiboarengatik ez ezik, hura aintzat ez hartzea abiapuntu ustela izango litzatekeelako euskara sustatzeko politika eraginkor baterako.

Hizkuntzari dagokionez ere, gero eta aniztunagoa da gure gizartea. Euskal gizartea gizarte elebiduna da, baina gero eta testuinguru eleaniztunago batean txertatzen ari da, batik bat belaunaldi gazteetan. Ingelesak —batez ere— eta beste hizkuntza batzuek tamaina bateko edo besteko lekua hartuko dute etorkizun hurbileko gizartean, esparru batzuetan funtzio jakin batzuk bereganatuz.

Testuinguru eleaniztun horretan ziurtatu behar du euskarak gizarte bizitzan behar besteko toki, behar besteko erabilera-esparru funtzional edukitzea, balio erantsi bat delako euskal gizartearen-tzat. Kontua ez baita izango euskara *edo* gaztelania, ezta euskara *edo* ingelesa ere. Aitzitik, kontua izango da euskara *eta* gaztelania (edo frantsesa) *eta* ingelesa.

Beraz, hizkuntza politikaz dihardugunean, euskara biziberritzeaz dihardugunean, elkarbizitzaz ari gara: gizartearen elkarbizitzaz, hizkuntzen arteko elkarbizitzaz eta hiztunen arteko elkarbizitzaz. Hizkuntza-elkarbizitza funtsezko osagai du gizarte-elkarbizitzak gurean.

Horregatik daude lotuta ekitatea eta hizkuntza politika. Ekitate sozialaren definizio bat hau da: zuzentasuna eta justizia zaintzea



zerbitzu eta politika publikoen kudeaketan, banaketan eta eraketan<sup>18</sup>. Halaber, ekitatea eta garapen iraunkorra oso lotuta dauden kontzeptuak dira<sup>19</sup>.

Giza talde bakoitzari osorik garatzeko aukerak ematea da iraunkortasunaren helburu nagusietako bat, eta pertsonen eta taldeen erabakimen demokratiko eta pluralistarekin lotzen da: giza talde batek bere burua garatzeko nahia baldin badu, aukera guztiak eskura behar ditu<sup>20</sup>.

Ekitateak, bestalde, hizkuntza politikaz ari garenean, hiztunen aukera berdintasunarekin eta ahulenaren aldeko ekintza positiboarekin du lotura. Bestela esanda, hizkuntzen gaia kudeatzeari dagokionez, ekitateaz dihardugunean zuzentasunaz ari gara, justiziaz; azken batean, herritarren aukera berdintasuna aniztasunean elkarbitzeko funtsezko elementua dela kontsideratzen badugu, ekitatezko hizkuntza politika batek euskararen aldeko politika positiboa egitea planteatzen du halaberharrez. Hala, euskara sustatzeko hizkuntza politika ekitatezko politika demokratiko baten zati bereizezin gisa ikusten dugu, herritar guztien aukera-berdintasunera hurbiltzeko politika den heinean. Euskara sustatuz, euskal

---

18. Social Equity in Governance. (2015). In National Academy of Public Administration, *Standing Panel on Social Equity in Governance*.

19. Nazio Batuek dioten bezala: «la sostenibilidad está íntimamente ligada al problema básico de la equidad, entendida como justicia social y mayor acceso a mejor calidad de vida. La sostenibilidad no es solo, ni en primera instancia, un tema ambiental. (...) Este *Informe* identifica vías de acción para que las personas, las comunidades locales, los países y la comunidad internacional promuevan la sostenibilidad ambiental y la equidad de manera que se refuercen entre sí». (Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo. (2011). *Informe sobre Desarrollo Humano 2011. Sostenibilidad y equidad: un mejor futuro para todos*. New York: egilea.

20. Erize, X. (2011). Hizkuntza ekologiatik iraunkortasunera: indarguneak, ahulguneak eta proposamenak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 81, 67-86.



hiztunek euskara erabiltzeko aukerak sustatuz, hizkuntza eskubi-deak babesten ari gara lehenbizikoz, baina baita gizarte kohesioa sendotzen ere, gure gizartea, gizarte elebiduna, guztiontzako bizileku adeitsua eta abegikorra bihurtzen. Elkarbizitza harmoniatsurik gabe ez baitira euskararen hazkundera eta garapen iraunkorra ziurtatuko, ez eta euskararen adin nagusitasun beterik gabe elkarbizitza harmoniatsurik ere.

# 7

## ZER ETORKIZUN NAHI DUGU EUSKARARENTZAT?

Goiko galderak, gutxienez, baditu bi alde, txanponaren antzera. Alde batean, galdera hauxe dugu: «zergatik euskara biziberritu?». Eta beste aldean badira bi hari-mutur, honakook: «zer etorkizun *nahi* dugu euskararentzat?», eta «zer etorkizun eraiki *ahal* diogu euskarari?»<sup>21</sup>.

Lehenengo galderak («zergatik eta zertarako euskara biziberritu?») erantzun asko ditu, ia denak onargarriak gainera, askotarikoak baitira herritarren identitateak edo identifikazio-moduak hizkuntzarekiko: guztiak dira onargarriak, hurkoaren aukera librea errespetatzen duten neurrian. Halere, bada erantzun bat, gure us-tez, askotariko erantzunekin bateragarria dena eta herritarren ge-hiengo zabalak partekatu lezakeena, norberaren erantzuna beste

---

21. EGOB (Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa) egitasmoaren emaitzetatik abiatuta, identifikatu ditugu euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarritzat har ditzakegun hogeita bat ideia. Izan ere, beste ideia batzuek ez bezala, hogeita bat hauek, aldiz, euskal gizartearen bi herenetik gorako onarpena dute, eta onarpen kuantitatibo eta kualitatibo zabala beharrezkoa da ezinbestekoa den adostasun sozial eta politikoa indarberritu eta areagotzeko. Zoru komuna eta bere gainean oinarritutako diskurtso partekatua tresna ezin hobekak dira gure gizarteko hizkuntza aniztasunaren iraunkortasunerako bidean, hots, euskara eta gaztelaniaren arteko gaurko desorekatik orekarantz pausoak ematen jarraitzeko eta herritar guztien hizkuntza hautua —euskara zein gaztelania izan— praktikan efektiboa izango den egoerarentz hurbiltzeko. Datozen 20 urteetako begiradan euskararen etorkizunaz dokumentu honetan irudikatzen dena zuzen-zuzenean lotzen zaie diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarriari. Aipaturiko oinarriak dokumentu honen 2. eranskin gisa jasota geratzen dira.





bat ere izatearen kalterik gabe, hain zuzen ere bizikidetzari zuzenean lotzen zaiona eta, agian honelatsu formulatu litekeena:

Herritar gehienek, euskal hiztun direnek nahiz ez direnek, euskara gizartearen elementu propiotzat hartuz bere egiten dutelako euskara biziberritzeko helburua, eta euskara herritar askoren ohiko hizkuntza delako, eta herritar askoren nahia delako euskara erabiltzea. Bizikidetzaren harmoniatsua eskatzen du herritar guztien aukera libre bermatu egin behar dela, baita hizkuntza hautuari dagokionean ere, euskara zein gaztelania izan hautatutako hizkuntza. Exijentzia etiko eta demokratikoa da hori.

Bigarren galderari dagokionez: «zer etorkizun *nahi* dugu euskararentzat?», eta «zer etorkizun eraikitzen *ahal* diogu euskarari?». Hainbaten gogoeta eta begietara, nolabaiteko ziurgabetasun eta ezinegon zantzuak ageri dira, bidegurutze batean bagina bezala (edonola ere, ez dezagun ahaztu «bidegurutze» batean bezala bagaude, honaino iritsi garelako dela, eta aurrera segitu nahi dugulako). 15-20 urteko perspektiban ari garela hausnarrean ahortzi gabe, zer dugu satisfazio eta lasaitasun erabatekorako helburu edo baldintza? Bi hizkuntzen arteko berdintasun sozial erabatekoa lortzea, agian? Hemendik aurrerako hainbat urte luzetan ez da hori ezagutuko —hara garbi esanda!—. Beraz, ikas dezagun nolabaiteko «insatisfazio» saihetsezin hori positiboki kudeatzen, etsipenean erori gabe eta errealitatea heldutasunez —den bezalakoa, alegia— ulertzen eta onartzen. Esan beharrik gabe doa helburu dugula euskararen etorkizuna ziurtatzea, hizkuntza-aukeren arteko oreka eta hiztunen arteko estatus berdintasuna praktikan lortzeko eta euskararen ezagutza eta erabileraren arteko aldea erabileraren mesedean murrizteko urrats sendoak egitea; azken batean, hizkuntza bizia izatea, gero eta biziagoa, gero eta erabilia-goia, gero eta bizi-indardunagoa, gero eta beteagoa... Horixe dugu helburu, gaur egungo asimetria perfektutik simetria inperfekturako bidea eginez, jakinda simetria perfekturik ez dagoela.



Nolanahi ere, bada «zer etorkizun eraiki nahi dugu euskarari?» galderari 40-50 urte barrurako helburu finalista batekin erantzutea ezinezkoa dela uste duenik ere...

Bestalde, gure txikitasuna aipatu izan da maiz. Txikiak gara, bai, baina txikia izatea ez da berez txarra, txikia izatea izan daiteke erakargarri, txikitasunak badu etika eta estetika bat.

Euskarak gero eta hiztun gehiago ditu. Izaten ari den bezala, hazkunde hori berezkoa baino handiagoa izatea ezinbestekoa da euskararen biziberritzean aurrera egiten jarraitzeko, baina horrek hiztunen tipologian ezaugarri berriak dakartza berekin. Datozen bi hamarkadetan, gero eta herritar gehiago izango ditugu euskara bigarren hizkuntza dutenak; gero eta euskaldun gehiago izango ditugu lehen hizkuntza (ama-hizkuntza edo etxeko hizkuntza) euskara ez den beste bat dutenak, gehien-gehienak gaztelania noski (jada hala da 40 urtetik beherako euskaldunen % 54,8); gero eta euskaldun gehiago izango ditugu bizimodua ingurune ez hain euskaldunetan egiten dutenak; gero eta euskaldun gehiago izango ditugu legitimitate osoz gaztelaniari lehen hizkuntza gisa eutsi nahi diotenak; gero eta euskaldun gehiago izango ditugu euskaraz baino erraztasun handiagoa dutenak gaztelaniaz. Eta euskal herritarren identitate aniztasunak lotura zuzena izaten jarraituko du gero eta euskaldun gehiago izango dituen euskal gizartearen hizkuntza portaerekin. Hori guztiori ez dugu etsipenez onartu behar; aitzitik, naturaltasunez eta lotsarik eta larriminik gabe onartu behar dugun errealitatea da, gure errealitate bakarra. Hori gara.

Eraginkortasunagatik baino ez bada ere, hobe dugu pentsamendu dikotomikoa alboratzea: hau *edo* hori beharrean, hobe hau *eta* hori, ahal den guztian. Hobe konjuntzioa, disjuntzioa baino. Hiztun komunitatea trinkotzea<sup>22</sup> ala gizarte osoa euskalduntzea ote

---

22. *Hiztun komunitatea trinkotzea* kontzeptua José María Sánchez Carrión «Txepetx»i zor diogu gehienbat, euskal soziolinguistikan, beste



da gure aukera? Estrategia intentsiboa ala estentsiboa? Eskola ala familia? Fishmanen<sup>23</sup> mailetako hau edo hura? Ez ote da hobea modu eskluientean beharrean modu osagarrian planteatzea, eta —hori bai, hori nahitaez— lehentasunak ordenatzea? Adibidez, hiztun komunitatea trinkotzeari eman zaion garrantzia eta pisua baino handiagoa eman behar zaio —hori da uste duguna—, baina kontuan hartuz euskal hiztun komunitateak inoiz izan ez dituen hizkuntza ezaugarriak dituela. Hain zuzen ezaugarri horiek guztiek (ez batak edo besteak bakarrik, baizik eta guztiek eta beren arteko konbinazio ezberdinek) neurri erabakigarrian eragingo dutela euskararen erabileran.

Ezaugarri horiek norbanakoaren baitan (euskara-gaitasun erlatiboa edo motibazioa, adibidez) eta gizartearen testuinguruan gauzatzen dira, eta besteak beste honako faktoreekin dute zerikusia: euskara etxean, kale-giroan edo eskolan eskuratua den, etxean erabiltzen den, kale-giroko eta lagunarteko hizkuntza den, eskolan irakas-hizkuntza eta beste jardueretako hizkuntza den... Euskal hiztun praktikante izatea gaur eta hemen, eta 20 urteko perspektiban, hautua da eta izango da<sup>24</sup>.

---

kontzeptu asko bezala. Ikus: Sánchez Carrión, J. M. «Txepetx». (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las Lenguas*. L. g.: autorea. Eta Sánchez Carrión, J. M. «Txepetx». (1999). *Márgenes de encuentro, Bilbao y el euskara: aplicación sociolingüística de la territorialidad*. Bilbo: Bilboko Udala.

23. Fishman, J. A. (1991). *Reversing Language Shift*. Clevedon (EB): Multilingual Matters. Eta: Fishman, J. A. (2001). *Can threatened languages be saved?* Clevedon (EB): Multilingual Matters.
24. Hitzunek «hautu» linguistikoak (hizkuntzen artean, erregistroen artean...) egin behar izatea ohikoa da hizkuntza bat baino gehiago ukipenean dauden gizarteetan, eta hautuok mota askotakoak izan daitezke, nazioarteko literatura soziolinguistikoan *language choice* [hizkuntza hautaketa] gaia jorratzen dutenean ageri denez: indibidualak zein kolektiboak, unean unekoak zein iraunkorrak, nahita egindakoak zein oharkabea egindakoak... Galdera da ea zergatik egiten dituzten hiztunek (banaka nahiz taldeka) egiten dituzten



Hortaz, aurreko pasartean aipatutako faktoreen ondoan, inoiz ez bezalako pisua hartzen dute euskararekiko atxikimenduak, kontsentsu sozial eta politikoak, eta euskarazko jardunaren erakargarritasunak. Atxikimendua hedatu eta sendotzeko garaia dugu datozen bi hamarkadotan, aipatu erakargarritasuna areagotzeko garaia. Alegia, motibazioak —bai, motibazioak pluralean, motibazio berriak— lantzeko garaia da. Arauak bai, behar dira zalantzarik gabe; baina motibaziorik gabe alferrik dira arauak, eta motibazioak ere ezin du izan soilik politikoa.

Motibazio berriak behar ditugu, ziurrenik elkarbizitzari eta prestigioari oso lotuak, beste zenbaiten artean euskara jakin eta erabiltzearen harrotasunari lotuak —herritar aberatsagoak egiten dituelako euskarak—, eta diskurtsoari lotuak, g. atalean nabarmentzen denez. Motibazioak maiz esperientziaren bitartez barneratzen dira. Hizkuntzaren bizi-indarrerako benetan erabakigarria, eguneroko jarduna da, eta motibazioak ere eguneroko jardunean urratsak egiteko lagungarriak izan behar dira. Ahantzi gabe, egunerokoan, euskarazko jarduna testuinguru eleaniztunean, baliagarritasun eta prestigio handiko hizkuntzen ondoan gertatuko dela, hots, gisa horretako hizkuntzen artean egin behar dela euskararen hautua egunerokoan.

Herritar guztien aukera berdintasuna, herritar guztien hizkuntza eskubideen bermea, elebitasun igualitarioa<sup>25</sup> dira elkarbizitzarako baldintza; igualitarioa ez den elebitasuna... huraxe da diskriminatzailea. Horrela, bada, herritar guztien hizkuntza eskubideak

---

hautuak, eta zein esanahi kultural eta soziolinguistikoa ematen dieten hautu horiei.

25. «Elebitasun igualitarioa» kontzeptuarekin hau esan nahi dugu: hizkuntza bien estatus berdintasuna, hots, herritar guztiek —elebatarrek zein elebidunek— hizkuntza eskubide berak izatea, hizkuntza batean zein bestean arituta ere. Ondorioz, herritar elebatarren eskubideak ez daude herritar elebidunen hizkuntza hauturako eskubidearen gainetik.



bermatzearen jomugak gizarte-adostasunaren oinarri izan behar du, eta herri-aginteen eginkizun garrantzikoa. Horrek guztiak oinarrian ekitatea jartzea dakar eta, beraz, elkarbizitza harmoniatsua eta ekitatiboa eskubide eta betebeharren arteko konstruktogisa ulertzea. Erdaldunak onartu behar du euskaldunak euskara normaltasunez erabiltzeko eskubide osoa duela, eta guztiz normaltzat hartu behar du milaka herritarrek euskara sentitzea lehen hizkuntzat edo hizkuntza kuttunentzat; eta euskaldunak onartu behar du gaztelania erabiltzeko eskubide osoa duela hala nahi duen euskal herritarrek, eta normaltzat hartu behar da milaka euskal herritarrek —euskaradun asko barne— gaztelania izatea beren hizkuntza kuttunena. Beste horrenbeste esan liteke euskara eta gaztelania, biak, identitate ezaugarri sendotzat dituzten herritarrei buruz ere. Guztiona da norberaren hizkuntza maitatzeko eskubidea, edozein delarik ere hizkuntza. Naturaltasuna —eta errespetua— nagusi.

Baina hori guztiek ulertu eta onartzen badute, horrek esan nahi du herritarren hizkuntza hautua errespetatzen dutela denek, norberarena bezala hurkoarena. Hori praktikan gauzatuko baldin bada, iritsi behar gara eraikitza herritar guztiek bi hizkuntza ofizialak gutxienez ondo ulertuko dituzten euskal gizartea, ulertu ezean ezinezkoa baita euskaldunaren hizkuntza hautua gaztelaniaren hautua bezala bermatzea (ikus 8. atala).

Izan ere, herritarrek ulertu beharko lukete elebitasun hartzaila ere zutabe sendoa dela elkarbizitza harmoniatsuentzako, eta elebakartasuna arazoa eta oztopoa dela hizkuntza askatasun efektiboarentzako; eta, beraz, elebakartasuna gainditzea —gutxienez ulermen mailan— elkarbizitza harmoniatsu eta ekitatezko baldintza dela. Hizkuntza hautuaren eskubidea errespetatzeko bidean beharrezkoa da bi hizkuntzak gutxienez ulertzea. Pisua eman behar zaio honi datozen 20 urteetako perspektiban, eta, alde horretatik, agerikoa da diskurtso berri eta partekatu batek duen garrantzia eta egin dezakeen ekarpena (ikus



2. eranskina). 4. ataleko proiektzioen arabera, nekez iritsiko gara, 20 urteren buruan, helburu hori lortzera, baina urratsak norabide horretan egin behar dira.

Azpimarratzekoa da, ikuspegi hau bat datorrela duela hiru hamarraldi pasatxo, Euskararen Legearen kariatara, hizkuntzaren auzia bideratzeko eta euskararen erabilera normalizatzeko helburuz, euskal gizartearen ordezkariak instituzionalak adostu zuen ereduarekin. Izan ere, eredu hura finkatu eta garatzen duen araubideak, bi hizkuntza ofizialen arteko parekidetasuna izanik helburu, euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea ez die euskaldunei bakarrik aitortzen, herritar guztiei baizik. Euskara-hiztunen komunitatea babeste hutsetik harantzago luzatzen du bere irismena, eta etorkizunera begira herritar elebidunez osaturiko gizarte elebiduna irudikatzen du. Zerumuga hori dago hamarraldiotako adostasun sozial eta politikoaren helburuetan, progresibotasunaren printzipioari loturik. Euskal hezkuntza derrigorrezkoan ikasle guztiek euskara ere ikastearen obligazioa finkatu izanak, adibidez, ikuspegi horretan du oinarria.



# 8

## HIZKUNTZA HITZARMENA INDARBERRITZEKO ZUTABEAK

Adostasun sozial eta politiko ahalik eta zabalena izatea ez da nahikoa, baina ezinbestekoa da aurrera egiteko. Ikuspegi ideologiko desberdinak izateak ezin du traba gaindiezina izan adostasunak eraikitzeko<sup>26</sup>. Desorekaren eta berdintasunik ezaren aurkako politika publikoek arrakasta izan dezaten, nahitaezkoa da adostasuna, estrategia adostuak erabiltzea. Zentzu berean, ahalegina egin behar da areriorik ez sortzen edo areriorik sortzen eta etorkizuna arriskuan jartzen lagundu dezaketen ekintza, erabaki eta neurriak saihesten.

30 urteotako euskararen biziberritze prozesuaren arrakasta ezin da esplikatuta Euskararen Legea gabe, herri-aginteen konpromiso efektiborik gabe, gizarteko askotariko eragileen bultzadarik gabe, hizkuntza plangintza estrategiko eta hizkuntza politika aktiborik gabe, baliabiderik gabe... Baina hori guztia ezin da esplikatuta —ez zen posible izango— adostasun sozial eta politiko zabalik gabe. Herritarren atxikimendua eta adostasun sozial eta politiko zabala dira zutabe erabakigarri eta nagusiak.

Adostasun sozial eta politikoa elikatu egin behar da. Gaur dugun baino adostasun handiagoa behar dugu. Behar dugu indarberritu honaino ekarri gaituen adostasuna, eta horretarako oso garrantzitsua da interes koitunturatuak haragoko konpromisoa. Ezinbestekoa da, era berean, euskara joera politiko jakin batekin ez identifikatzea.

---

26. Adibidez, jakitun gara ikuspegi ideologiko desberdinak daudela elebitasun sozial orekatuaren ideari buruz, baina posible izan behar da adostasun praktikoak lortzea.



Indarberritze horretarako oinarri nagusiak honako hauek dira:

- ▶ **LEHENENGO OINARRIA:** bizikidetza, aukera berdintasuna, demokrazia, askatasuna... eskubide eta obligazioen dialektikan bakarrik garatu daitezke. Euskararen kontua bizikidetza, aukera berdintasuna, demokrazia eta askatasuna sendotzeko kontua da. Gainera, printzipio horien arabera bakarrik da onargarri, eta, aldi berean, printzipio horiek aberasteko da nahitaezkoa hizkuntza gaian aukera berdintasun efektiboa sustatzea, berdintasun formal hutsetik haratagokoa dena. Bizikidetzarako baldintza nahitaezkoa da aniztasuna egiazki errespetatzea, paradigma uniformizatzaileak alboratzea, baita hizkuntza kontuetan ere. Hizkuntza aniztasunaren kudeaketa demokratiko eta iraunkorra da, hain zuzen ere, adostasun sozial eta politikoa berritzeko eta indartzeko bidea. Hizkuntzak osagarri, bateragarri ikustea. Horrek eskatzen du hizkuntzen aukera berdintasunerako politika positiboak egitea ahulena- ren alde, euskararen alde. Hori ez da inposizioa, hori berdintasunaren aldeko politika da, hori demokrazia linguistikoa da, hegemonismo linguistikoaren aurrean indartu behar dena. Hori da Euskararen Legearen<sup>27</sup> eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Kartak<sup>28</sup> (ikus 7. artikulua) letra nahiz espiritua errespetatzea, hasieran ikusi bezala.

Inposiziorik ez, beraz. Inposizioa da hizkuntzaz aldatzera behartzea. Hori gertatuko ez bada, beharrezkoa dugu herritar elebidunez osaturiko gizartea, neurri batean bederen elebidun izango diren herritarrez osaturiko gizartea, bakoitzak erabili

---

27. Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa [Euskararen Legea]. (1982). *EHAA/BOPV*, 160, 3.138-3.146. or.

28. Council of Europe-Conseil de l'Europe. (1992). *European Charter for Regional or Minority Languages-Charte européenne des langues régionales ou minoritaires. Basque version. Unofficial translation.* Strasbourg: autorea.





ahal izan dezan bere aukerako hizkuntza. Hortaz, adostasun indarberrituaren lehen oinarria litzateke etorkizuneko gizartea herritar elebidunez osaturiko gizarte gisa irudikatzea eta, bi hizkuntza ofizialen ezagutzari dagokionez, gutxienez ulertu egiten dituzten gizarterantz progresiboki urratsak egiten jarraitzea. Hori bera da, hain zuzen, Euskararen Legeak berak ere etorkizunerako irudikatzen duen gizartea: herritar elebidunez osaturiko gizarte elebiduna, bistan denez progresiboki eraiki beharrekoa, herritarren borondatearen eskutik. Beste hitz batzuetan esanda: herritar guztiek hizkuntza hautatzeko eskubidea egiazki edukitzera iristea; hizkuntza askatasuna herritar guztientzako efektiboa izatera iristea (euskararen hautua egiten dutenentzako, gaztelaniarena egiten dutenentzako bezalaxe, berdin-berdin); herritar guztiak gutxienez bi hizkuntzak ulertzera iristea, bakoitzak nahi duen hizkuntza ofiziala erabili ahal izan dezan, eta inor ez dadin, ez aktiboki ez pasiboki, hizkuntzaz aldatzera behartu, eta inor ez dadin *arrotz* sentitu edozein delarik ere bere hizkuntza hautua.

Urrun gaude hori izatera iristetik, baina horrek behar du hizkuntza bizikidetzarako *euskal ereduaren* lehen oinarria eta datozen bi hamarkadetakako aurreikusten dugun garabidea: biak ulertu, bakoitzak gogokoen duena erabili dezan.

Ezagutzaren unibertsalizazioa behin eta berriz aipatzen den gogoia da. Hogeituroteko perspektiban ez gara, inondik ere, horretara iritsiko, baina iritsi gaitezke 25 urtetik beherako herritarren artean euskararen ezagutza ia unibertsalizatzera eta 50etik beherakoen artean euskaldunak bi heren pasatxo izatera (ikus 4. atala).

- **BIGARREN OINARRIA:** hizkuntza bizia, adin nagusiduna izatea da euskararentzako nahi dugun etorkizuna. Bihotzetik ezpainetara gehiagotan eta gehiagok eramatea nahi dugu. Guk bakarririk eraman dezakegu, euskal herritarrok, euskaldunok. Hori



da gure «misio unibertsala». Eta hori erabileran jokutzen da. Beraz, erronka da euskara lehen hizkuntza dutenek hala izaten jarraitzea, hots, euskal hiztunen komunitatea trinkotzea. Eta, horrekin batera, euskarara hurbiltzen direnek gero eta funtzio gehiagorako erabiltzea. Azken batean, erabilera baita erronka, euskara bizitzarako hizkuntza bizia izan dadin. Harrotasunez bereganatu behar duen erronka du hori euskal gizarteak.

Bi oinarri horien arabera, denok dugu gure egitekoa: herritar euskaldunek, herritar erdaldunek, herri-aginteez, askotariko gizarte eragileek, alderdi politikoek, sindikatuak, enpresariak, hedabideak, irakasleak, unibertsitateak, administrazioko arduradun eta langileak... denek.

Euskararena auzi politikoa da, zentzurik zabalenean. Euskarak politika behar du, baina bere etsairik handienetako bat politikakeria da, bere bizkar egindako *tresnakeria* politikoa. Zentzu horretan, adibidez, kaltegarria litzateke gure arteko dikotomia politikoek hizkuntza dikotomia eragitea. Politikakeriak, edo euskara joera politiko jakin batekin identifikatzeak edo euskara joera politiko jakin batzuk indartzeko erabiltzeak euskararentzako eskenatoki guztiz hilgarria lekarke: ghettoarena. Erabat saihestu behar da hori.

Euskararentzako nahi dugun etorkizuna eraikitzeak euskara erdigune politikoan jarri behar da. Euskara adingabeko hizkuntza edo adin nagusikoa izatea, sinbolo soila edo hizkuntza bizia, gizarte zabalarena edo zati batena, inklusiboa edo ghettoa kondenatua... hori guztia da jokoan daukaguna, eta aukera horien guztien artean adostasun berrituak egin beharko lukeen aukera, noski, «adin nagusiarena», gizarte «zabalarena» eta «hizkuntza biziarena» litzateke.

Helburu horiek lortzeko bidean beharrezkoa da hizkuntza politika zehar-lerrotzat hartzea herri erakundeetan, eta hizkuntzen kudeaketa era guztietako erakunde, enpresa eta elkarten kudeake-



ta printzipioetan barneratzeko eta orokortzeko sustapen lana egitea. Azken batean, euskarari zentralitatea ematea.

Bide horretan garatu behar diren hizkuntza politikek progresiboak eta eraginkorrak izan behar dute, euskararen egoeran unean uneko helburu aurreragarriak ezarriz eta herri erakunde, enpresa, elkarte, gizarte-eragile eta herritarrentzat hein handi batean egingarri diren hizkuntza erabilerak eta praktikak definituz.

Adostasun zabal eta berritu horrek helburu eta giltzarri behar ditu herritarren parte-hartzea eta inplikazioa. Herritarren partaidetza sustatzeko tresnarik eraginkorrena elkarlana da; beraz, herri aginteen, askotariko gizarte eragileen eta norbanakoen arteko lankidetzak etengabe bilatzeak ere izan beharko luke adostasun berrituaren ezaugarri; eta horretarako, formula berriekin batera, adostasunaren baitako jarrera aldaketak ere beharrezkoak izango dira. Bakoitzak bere lan egiteko era izango du, bere esparrua, nahiz eta batzuek asko egin eta beste batzuek gutxi. Ahaleginik txikiena ere onuragarria da. Elkarlanak eramango gaitu aurrera, itxikeriarik gabe jokatzek.

Halaber, hizkuntza politika berritu eta adostuak euskararen erabileraren prestigioa eta errekonozimendua sustatu behar ditu, herritarren atxikimendu afektibo eta sinbolikotik atxikimendu eta leialtasun praktiko eta indartsu batera igaro gaitezen. Beraz, herritarra —hizkuntza erabiltzaile gisa— jarri behar du erdigunean hizkuntza politika adostu eta berrituak.

## LEHENTASUNEN MARKO BATERANTZ

Gure buruari «eta hemendik aurrera zer?» galdetzen diogunean, hausnartu nahi dugu honakoaz: zernolako egoera irudikatzen dugun ikuspegi demolinguistikotik 20 bat urtera begira, eta zernolako lehentasunak finkatuko genituzkeen. Irudikatzen dugun ikuspegi demolinguistikoaren berri emana dago 4. atalean.

Datozen 20 urteei begira lehentasunen markoa finkatzen laguntzeko ekarpena da ondorengo proposamena. Ez da, beraz, ekintza-programa bat, ezta ere arloz arloko lan-ildoen zerrenda bat<sup>29</sup>. Lehentasunak finkatzeko lagungarri izateko asmoa duen markoa da.

Lehentasunen markoa ezartzerakoan, oso lagungarria izan daki-guke Iñaki Martínez de Lunak<sup>30</sup>, Fishman-en zenbait kontzeptu makulu hartuta, euskararen erabileraren azalpenerako definitu zituen hiru dimentsioak gogoratzea: dimentsio makro-soziala, dimentsio mikro-soziala eta norbanakoaren dimentsioa. Martínez de Lunaren ereduari jarraikiz, hiru dimentsio horiek elkarri eragiten diote eta osotasunean hartu behar dira, ondoko irudian adierazi nahi den legez. Hala ere, esan genezake euskararen historian,

---

29. Marko honek aurrekari hurbilak ditu, lehenago esan bezala: batetik, *Euskara 21. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berritu baterantz* dokumentuan finkatutako 14 lan-ildoak (Euskararen Aholku Batzordea, 2009. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza, Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza); eta bestetik, *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua* (Euskararen Aholku Batzordea, 2015. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza).

30. Martínez de Luna, I. (2012). Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 84, 121-137.



zenbait kasutan, gertatu izan dela hizkuntzaren biziraupenerako nahikoa izatea dimentsio indibiduala eta mikro-soziala, nahiz ete dimentsio makro-soziala aldekoa ez izan<sup>31</sup>.

Honekin guztiarekin, halaber, ikerketa soziolinguistikoaren garrantzia agertzen zaigu, eta horiek sustatu eta babestearen beharra.


**Euskararen erabilerarako baldintzak<sup>32</sup>**

**1. Norbanakoaren dimentsioa:**

- Gaitasun erlatibo nahikoa.
- Motibazio nahikoa.

**3. Dimentsio makrosoziala:**

- Gizartearen babesa.
- Lege-estatus egokia.
- Hizkuntza-politika.



**2. Dimentsio mikrosoziala (gizarte egoerak eta gizarte-sareak):**

- Solaskideen ageriko gaitasuna.
- Harreman trinkoa.
- Hautua egiteko ahalmena.
- Hizkuntza-planak.

31. Ikus, adibidez: Erize, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. *Soziolinguistika Historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

32. Rudiaren iturria: Martínez de Luna, I. (2012). Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 84, 126. or.



Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)<sup>33</sup> dokumentuaren izenburuak dio «bizikidetzarako hizkuntza bizia» dela Agendaren oinarria. Eskuartean dugun Martinez de Lunaren ereduaren abiapuntua da «hizkuntza bizia erabiltzen dena da». «Dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen», esana utzi zigun Axularrek. Lehenetasunen marko honen oinarrian dagoena ere, noski, horixe da: euskararen erabilera. Izan ere, egoera elebidun edo eleaniztun batean, ukipen egoeran dauden hizkuntzetako hiztunek, une askotan, horien arteko bat hautatu beharko dute. Euskararen alde egingo badute, grafikoko irudian jasotako hiru maila horietako baldintzak bete beharko dira, ez erabat, baina bai neurri handi batean. Bestela, hiztun elebidunek hizkuntza nagusirantz joko dute, askotan oharkabean.

Beraz, erabilera helburu eta ardatz hartuz, hiru dimentsio horietan ezarri beharko ditugu hurrengo urteetarako lehenetasunak. Nolanahi dela ere, lehenetasunen markorako proposamenak aletu aurretik, utzi dezagun esanda honako hau: lehenetasunetan lehenetasun orain arte lortutakoari eusteak izan behar du. Egindakoa handia da, eta haren iraupena ez dago berez bermatua. Egindakoari eustea ere, 4. atalean esan denez, askotariko energia sozial aktiboen emaitza da, ez da berez datorrena. Lortutakoak baditu ahuleziak, erraza da atzera egitea. Eutsi behar zaio egindakoari.

Eta lehenetsi behar gukeen giza taldea gazteen taldea da. Besteak beste arrazoionatik: euskararen hazkundeak gazteen eskutik etortzen jarraituko duelako; gazteen artean kontzentratzen direlako euskaldunen proportziorik nabarmen altuenak; euskaraz hazi, formatu eta hezitako belaunaldiak izango ditugulako; gazte euskaldun guztiak euskaraz alfabetatuak direlako; unibertitate ikasketadun gazteen portzentajeak Europako altuenetakoak di-

---

33. Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. (2014). *Euskararen Agenda Estrategikoa 2013 — 2016*. Vitoria-Gasteiz.



renez etorkizuneko gizartearen gidari eta liderrak gazteen artean daudelako. Ez badugu nahi gazteek euskara soilik hezkuntzarekin eta derrigortasunarekin lotzea, beharrezkoa genuke euskarari buruz duten/dugun ideia mudatzea. Euskarazko jarduna erakar-garri izan behar zaigu, zerbait desberdina eskaini behar die euskarak gazteei, beste hizkuntzek ez duten xarma, komunikazio-tresna huts izatetik haratago, erabilgarritasunetik haruntzago.

Euskara gazteen ohituretara, disfrutatzeko erabiltzen dituzten eremuetara eta teknologia berrietara eraman behar dugu. Nolanahi ere, berriazko gazte politikak ez ezik, haien ekosistema osoan eragingo duten politikak bultzatu beharko dira.

Lehentasunen proposamena honako hurrenkera honetan azalduko dugu: dimentsio makrosoziala (9.1), dimentsio mikrosoziala (9.2) eta norbanakoen dimentsioa (9.3).

## 9.1. Lehentasunak dimentsio makrosozialesan

### 9.1.1. Gizartearen babesa: diskurtsoa edo *framing*-a<sup>34</sup>

Euskararen gaineko hainbat diskurtso dago gure artean, normala denez. Kontua ez da diskurtsoen ugaritasuna ezabatzea, ez bakarrik ezinezkoa delako, baizik eta, are garrantzitsuagoa, halakorik nahi izatea euskal herritar izateko eta euskara bizitzeko ikuspuntu eta modu ezberdinak ezabatzea litzatekeelako. Aniztasuna ukatzea, azken batean. Baina hizkuntza bizikidetzaren gizarte bizikidetzaren muinaren parte denez, behar da euskararen gaineko diskurtso partekatua, gizartearen oso gehiengo zabal batek partekatua, hizkuntza hautu ezberdinen errespetua eta euskararen

---

34. Ikus: Martínez de Luna, I. (2013). Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 13-83.



aurrerabiderako eraginkortasuna aintzat hartzen dituen diskurtso partekatua. Hizkuntza politika eraginkorra izatea nahi badugu, behar-beharrezkoa da diskurtso edo *framing* berritua gizarteratzea. Diskurtsoak adostasun ahalik eta zabalena izango du oinarri, ikuspegi kontrajarriak gainditzeko gauza izango da, helburu egingarriak izango ditu eta gizarte pluralaren nahi eta ezaugarrietara egokituko da. Hortaz, lehentasunezkoa da diskurtso berritua eta adostua eratzea eta gizarteratzea. Horrek ez du esan nahi, noski, azkar eta erraz lortuko denik ikuspegi hori partekatua izatea eskal gizartean diren sentsibilitateen artean.

Diskurtso berritu eta bateratuaren eraikuntzari dagokionez ere, ez gara hutsetik abiatzen. Hor ditugu, besteak beste, *Euskara 21. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berritu baterantz*<sup>35</sup> dokumentua, *Euskararen Aholku Batzordeak 2009an onartua eta Eusko Legebiltzarrak ere bere egina; hor dugu Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoen lanketa* prozesua (EGOD proiektua)<sup>36</sup>, parte hartze zabala izan duena; eta, hor dugu *Euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarriak* izeneko dokumentua<sup>37</sup>.

Bistan da: unean une gailentzen diren diskurtsoek asko baldintzatzten dituzte politika publikoak. Euskarak eta gaztelaniak gaur bizi

---

35. Euskararen Aholku Batzordea. (2009). *Euskara 21. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berritu baterantz*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

36. Euskararen Aholku Batzordea [txostengileak: Martínez de Luna, I., Erize, X., Akizu, B., Etxaniz, J. eta Elizagarate, A.]. (2016). *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa —EGOD egitasmoa— Emaitza txostena* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak enkargatutako egitasmoa). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza. Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

37. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. (2016). *Euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarriak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.





du ten egoera sozial desorekatuan, euskarak nahitaez behar du aha-lik eta kultura, ideologia eta joera gehienetako giza taldeek, erakun-deek eta norbanakoek bere egingo duten diskurtso sustatzailea eta inklusiboa. Euskarak euskal gizarteko iruditerian duen lekua hobetu beharko luke, duintasunean irabazi, zentralitatea lortu gure gizar-tean. Euskarari soineko berri bat josi behar zaio, diskurtso berri-tu bat, argiari lotua, baikorra, erakargarria eta partekatua.

Diskurtso partekatua oinarri sendoa izango litzateke euskararen irudi publikoa indartzeko. Euskara jakin eta erabiltzearen ospea sendotzeaz ari gara, eta, horretarako, mesedegarri izango litzateke gizartearen eremu ezberdinetan (politika, ekonomia, kirola, arteak, komunikazioa...) modu eta neurri bateko edo besteko lidergoa du-tenak aipatu irudi publikoaren mesedean aktibatzea.

### 9.1.2. Gizartearen babesa: euskaraz egitearen legitimitatea

Euskararen erabileraren aldeko giroa indartu behar da, hots, euska-raren erabilerarako gonbidapena lau haizetara zabaldu gizartean, eremu ezberdin eta ugarietan euskaldunak euskara erabiltzearen legitimitatea irabazteko eta sendotzeko, eta euskaraduna euskara naturaltasunez erabiltzera etengabe gonbidatzeko. Gizartearen harreman-esparru zabalean euskarazko erabiltzaile potentzialen berri erraz jakiteko ikur edo irudia landu eta zabaldu behar litzate-ke, betiere gonbidapen izaera eta borondatezkotasun ezaugarria eman ez eta presio zantzu guztietatik erabat aldentuz.

### 9.1.3. Lege estatusa

EAEn dugun araubidea lege-bitarteko eraginkorra izan da orain arte egindako bidea egiteko, eta etorkizunari begira ere egokia



izaten segitzen du, garapenerako aukerak ematen baititu. Komenigarria izango litzateke araubideari buruzko eztabaidak ika-mika interesatuetatik salbu uztea, era bateko edo besteko liskarretatik salbu. Nolanahi ere, euskara biziberritzeko prozesuak aurrera egin ahala, eta gizartearen ezaugarrien bilakaera aintzat hartuz, hizkuntza-araudian egon litezkeen mugak edo egokitu beharrekoak identifikatzeko eta hobetzeko gogoetak eta azterketak egitea beti izango da komenigarri, kasua balitz, bidezkoak diren egokitzapenak egiteko, betiere gizartearen aldian aldiko borondatearekin bat etorrita eta askotarikoen arteko adostasun zabalean oinarrituta. Euskararen lege-araubidearen garapenean oso bereziki zaindu beharko da lege-arau sektorialetan hizkuntzen trataera egokia txertatzea, gure legeriak ezartzen duen euskara eta gaztelaniaren estatus berdintasuna arloz arlo gauzatzea errazteko eta ahalbidetzeko.

#### 9.1.4. Hizkuntza-politika: euskararen lurraldea

Euskara biziberritzeak euskararen lurralde osorako helburu komuna izan behar du, eremu administratibo bakoitzaren ezaugarriak eta erabaki ahalmenak errespetatuz, noski. Zentzu horretan, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Kartaren ebaluazio txostenetan Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak gomendatzen duenez, egokia litzateke euskararen lurraldeetako herri erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzaren garatzea, lurralde guztietako premien argitara ikerketa gauzatzea, euskararen sustapen iraunkorraren eraginkortasunaren mesedean. Euskararen lurraldeen artean euskararen bizi-indarrari dagokionez, gaur egun dagoen asimetria progresiboki murrizterantz jotzeak helburu komuna izan behar du, betiere, eta esan denez, lurralde bakoitzaren egoera soziolinguistikoa eta bere herritarren borondatea kontuan hartuta.



### 9.1.5. Hizkuntza-politika: Estatuko eta Europako esparruak

Hizkuntza txiki-ertainen babesa eta sustapena landu beharko da Estatuan eta Europan. Bizi garen testuinguru linguistikoan eta geopolitikoan, Europan hizkuntza-aniztasunak etorkizunean hartzen duen norabideak eragin lezake euskararen bilakaeran. Beraz, hizkuntza txiki eta ertainek europar testuinguruan estatus eta egoera normalizatua izan dezaten bultzatu beharko genuke, egitura politikoak (eskualde mailako erakundeak, mugaz gaindikoak, europar erakundeak) eta Europan hizkuntzaaniztasuna sustatzeko dauden elkarteak, foroak eta ikerketak baliatuz, jadanik urraturiko bidean sakonduz. Espainiako Estatuan ahalbidetu behar da hizkuntza hitzarmen berri bat, Espainiaren eleaniztasuna praktikan bere egin dezaten Estatuko erakundeek, eta gaztelania ez beste hizkuntza ofizialek izan dezaten adin nagusiko hizkuntzen legezko aitormena Estatuan eta erabiliak izateko aukera Estatuko erakundeetan.

### 9.1.6. Hizkuntza-politika: Administrazioari lotutako zerbitzu publikoen esparruan arreta elebidunerako gaitasuna borobiltzea

Administrazioari lotutako zerbitzu publikoen esparruan (polizia, osasun zerbitzua, justizia eta gainerako guztiak hartuta) arreta elebidunerako gaitasuna borobiltzea oso garrantzitsua da, egokia baita administrazioari berari zuzenean lotzen zaizkion arlo hauek lehentasunen artean sartzea.



## 9.2. Lehentasunak dimentsio mikrosozialean

### 9.2.1. Harreman-sareak eta solaskideen gaitasuna

Modu bateko eta besteko harreman-sareen eremua da dimentsio mikrosozialarena, egunerokoan ehuntzen eta gauzatzen diren harreman sareena. Pertsonen arteko komunikazioan gauzatzen da mintza-jarduna, eta, ondorioz, garrantzi betea dute harreman-sareek. Gizarte-harremanak, gainera, hizkuntza baldintza ezberdinetan gertatzen dira, eta baldintza horiek zuzenean eragiten dute euskararen erabileran. Haur eta gazteen sozializazioari loturik dago zuzenean harreman-sareetako hizkuntzaren kontua. Eta sozializazioa familiatik eta eskolatik haratago gauzatzen da.

Euskara-gaitasun erlatiboarekin ere badu loturarik dimentsio honek, baita familiako eta eskolako euskara transmisioarekin ere. Horiek, ordea, norbanakoaren dimentsioan jorratuko ditugu aurreraxeago.

Kontua da etxetik euskaldun ez direnak direla gazte euskaldunetan gehienak, 2. eta 3. zonalde soziolinguistikoetan bizi direla<sup>38</sup>, eta ugaltzen ari direla gazteen artean erdal elebidunak. Nagusiki edo soilik eskolaren eskutik euskaldundutako gazteen harreman sareetan (etxea, lagunartea, kale-giroa, lantokia) euskara oso ahula baldin bada, euskaratik urrun geratuko dira haiek. Eta etxetik euskaldundutakoen harreman sareetan ahul baldin bada euskara, edo euskararekiko kontzientzia ahula baldin bada, lehen hizkuntza izatetik bigarrena izatera pasatzeko arriskuan izango dira horiek.

---

38. 2. zonalde soziolinguistikoa: biztanleriaren % 20-50 bitartean da euskalduna. 3. zonalde soziolinguistikoa: biztanleriaren % 50-80 bitartean da euskalduna. Ikus: Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa, 2011*. Vitoria-Gasteiz.



Euskararen arnasmuneez eta etorkinen integrazioak —bi gai oso ezberdin baina garrantzitsu aipatzearen— erantzun propioak eskatzen dituzte.

Bistakoa da gazteen mundua, giroa, ohiturak, aisialdia euskarazteak duen garrantzia, euskara erakargarri eta erabilgarri sentitzeak duena: azken batean, euskarak euren egunerokoan lekua baduela ikusteak.

Abiapuntu horiek guztiak buruan, beraz, lehentasunak finkatzeko berebiziko garrantzia behar dute aisialdiak, IKTek, hedabideek, alor sozioekonomikoak eta lan munduak, ekintzaileak barne. Esate baterako, aisialdian —nola ez, IKTen bidezkoan ere—, euskararen erabilerak duen egoeran jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa eman behar da, aukera apartak daudelako euskararen erabilera sustatzeko. Alor sozioekonomiko eta lan munduari dagokionez, berriz, lanbide heziketako euskararen erabileran, arrunt hobetu behar da. Beste hainbat ataletan ere, ordea, aurreratu behar da, adibidez, enpresetako hizkuntza-plan eta prozesuetan, betiere euskararen erabilera zerbitzuaren kalitatearekin lotuz. Hedabideei dagokienez, azkenik, euskal hiztuna eta horren apetak jarri behar dira erdigunean. Hedabideen aipamena egiterakoan, ezinbestekoa da nabarmentzea EITBren eginkizuna euskararen erabilera sendotu eta areagotze bidean, beharrezkoa delarik eginkizun hori gizartearen aldaketa soziolinguistikoetara eta euskararen hazkundera egokitzea, euskararen sustapenean ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Hizkera kolokialerako adierazkortasun-baliabideak sortu eta lantzea ere garrantzitsua da.

Garrantzi betekoa da gizarteak berezkoak dituen eremuetako eragile naturalek —enpresari, ekintzaile, sindikatu, hedabide, kontsumo arloko elkarte, elkargo profesional, alderdi politiko, kirol erakunde, arte eta kultur gile eta abarrek— beren ohizko jardunean euskararen erabilera ere integratu dezaten pausoak ematea.



### 9.2.2. Harreman trinkoa

Euskararen hamarraldiotako hazkunde jarraitua etorkizunean iraunkorra izateko, euskararen hazkunde demografikoak jarraitu izatea bada beharrezkoa, baina ez da nahikoa. Behar-beharrezkoa da hiztun komunitatea trinkotzea. Horretarako, besteak beste, garrantzizkoa da arnaguneak garatzea, hizkuntza erabileretan euskara hizkuntza nagusi den eremu geografikoak eta, batez ere, esparru sozio-funtzionalak izatea, hedatzea eta indartzea.

Euskara, eremu jakin batean, erabilera eta harreman hizkuntza nagusia izateko, garrantzitsua da eremu horretako kideen arteko adostasuna eta behar besteko baldintzak izatea. Honek guztionek batez ere eremu euskaldunenetara eta adin batetik beherakoengana begira jartzen gaitu.

## 9.3. Lehentasunak norbanakoaren dimentsioan

### 9.3.1. Euskara-gaitasun erlatiboa

Euskara-gaitasun erlatiboa erabakigarria gertatzen da erabilera-rako. Hamarkada hauetan euskarak izan duen hazkundeak elebidunen tipologiak aniztea ekarri du, eta tipologia aniztasun hori kontuan hartu behar da edozein plangintzatan. Bilakaera horren ondorioz, gaitasun erlatiboa da egungo herritar elebidun askoren ahulezia, bereziki mintza-jardunari dagokionez. Ahozko gaitasuna urria bada, nekez erabiliko da hizkuntza hori. Dagoeneko dokumentuaren aurreko ataletan aipatu dugunez, ugaltzen ari dira gazteen artean erdal elebidunak. Horregatik, garrantzitsua izango da euskararen transmisioa lantzen denean zeregin hori ikuspegi kognitibo soiletik ez planteatzea eta hizkuntza sozializazioaren alderdia sendotzea. Hiztunen elkarrekiko laguntza ere sustatu behar da, adibidez, euskaldun zaharren artean euskaldun berriekiko laguntza-jarrerak sustatuz.



Harreman-sareei buruz esandakoaren ildo beretik, haur eta gazteen sozializazioari zuzenean loturiko fenomenotzat hartu beharko genuke euskara-gaitasun erlatiboaren kontu hau ere. Sozializatorako esparruetan garrantzitsua da eskola, noski, baina ez da bakarra, eta adinean aurrera egin ahala are mugatuagoa da bere eragina. Eta eskolan (edo agian hobeto esanda legoke hezkuntzan) garrantzizkoa da, noski, irakas-hizkuntza, baina garrantzitsua da, halaber, ikasgelaz kanpoko eskola munduko jardueren hizkuntza, adinean aurrera egin ahala are erabakigarriagoa. Abiapuntu horien argitan finkatu behar dira lehentasunak. Berehala lotuko gaitzaizkio zuzenean gai honi.

#### 9.3.1.1. Euskara gaitasun erlatiboa: hezkuntza-sistemaren optimizazio linguistikoa

Hezkuntza-sistema da etorkizuneko euskaldunen kopuruaren eta hizkuntza kalitatearen gako bat, garrantzitsua, berariazko arreta eskatzen duena. Esan denez, mugatua da eskolaren eragina, ez baita ahalguztiduna, baina eskolako euskararen transmisioa indartzeko badago zer hobeturik. Arreta jarri beharko genuke, beste zenbaiten artean, irakasleen euskara gaitasun komunikatiboa hobetzean eta eskola-inguruneko jarduera ez akademikoetako hizkuntzan, horrek guztiak zuzeneko eragina izan baitezake haur eta gazteen euskara gaitasun erlatiboan. Izan ere, ikasleen euskara gaitasuna hobetzea izanik helburua —zeinahi delarik ere beraien gaurko hizkuntza eredua—, ahalegin berezia eskatzen dute irakasleen euskara gaitasun komunikatiboa hobetzeko formazioak, curriculum diseinuak eta ikaskuntza-metodologiak. Eskola barruan ahozotasuna lantzeak eta hizkuntzen didaktika eguneratzeak eta ikertzeak hobekuntza nabarmenak ekar ditzakete. Azken batean, irakasle eta ikasle askoren bigarren hizkuntza da euskara, eta zailtasun hori erronka bihurtzea beste aukerarik ez daukagu.



### 9.3.1.2. Euskara gaitasun erlatiboa: helduen euskalduntzearen eraginkortasuna

Helduei dagokienez, haien euskalduntzeak ikasmaita guztietan garrantzi handia izaten jarraituko du. Nolanahai ere, herritar elebidunez osaturiko gizartea jomugan jarrita, euskararen gaineko adostasunaren oinarri nagusietariko izango baldin bada «denek euskara gutxienez ulertu, gero bakoitzak nahi duen hizkuntza ofiziala erabili ahal izan dezan», indarra egin behar da euskararen ezagutza gutxienez hartzailea edo pasiboa ahalik eta gehien orokortzeko (eleantiztasun hartzailearen komunikatzeko ohitura sozialak zabalduz, adibidez). Gutxieneko maila baterainoko ikasprozesua aprobetxamendu akademikoaren arabera doakoa izatera iristea eragingarria izango litzateke ibilbide horretan.

### 9.3.2. Motibazioa

Euskararen sustapenean eraginkorrak izateko, lehen mailako arreta eskatzen duen gorabehera da motibazioarena, beste hitz batzuetan esanda euskararekiko jarrera, atxikimendua, hizkuntza kontzientzia, hizkuntzarekiko leialtasuna eta identifikazioa, gogoia. Txosten honen hasieran esan denez, faktore objektiboek ez ezik, subjektiboek ere (motibazioak, jarrerak, diskurtsoak, emozioak...) erabileran modu erabakigarrian eragiten dute eta garrantzi handia eman behar zaie, zenbaitetan ematen zaiena baino handiagoa. Datozen urteotan ikerketa ildo garrantzitsua izan beharko luke faktore subjektiboei buruzkoak.

Euskarak behar duen aldaketa soziala gauzatzen jarraitzeko, aldaketa estrukturala ez ezik, pertsonen / gizabanakoen aldaketa behar dela uste dugu, gizartetik pertsonara eta pertsonatik gizartera doan interakzio errekurtsiboan. Hizkuntza bera ez baizik eta herritarrak baitira hizkuntza auziaren protagonistak, euskarare-





kiko urrun eta uzkur daudenetatik euskaltzale praktikante suharretaraino daudenak, denak, dira kontuan hartzekoak.

Hizkuntz erabileran motore dira motibazioak, eta motore da adostasun sozial eta politiko zabala. Nork bere lekutik hori elikatzea denon egitekoa dela uste dugu. Herritarren hizkuntzarekiko atxikimendua, bada, elikatu egin behar da eta euskararen aldeko sentiberatze lana etengabe egin, erreferentzialtasuna duten arlo eta mota guztietako lidergoen eta portaera eredugarrien zabalkundea tarteko.

Hori guztia, bestalde, oso lotua dago diskurtso berritu eta partekatuarekin. Motibazioen munduak, hain zabala izanik, lotura du, besteak beste, hezkuntzarekin eta aisiarekin ere. Jakina da motibazioak askotarikoak direla, eta, ikerketen arabera, motibazio anitzen artean identitatea —zentzurik ireki eta zabalenean ulertuta— eta integrazioa dira, gaur, motibazioen artean pisu handiena daukatena.

Euskararekiko motibazioan eragiteko, garrantzitsua da erreferenteak izatea edo sortzea. Eta euskararen aldeko motibazioa eta irudi positiboa lantzerakoan arreta jarriko zaie hizkuntzarekiko identifikazioari, afektibotasunari, maitasunari, interesari, lorpenei eta abarri. Horretan garrantzitsua izango da, beraz, hainbat eragile eta esparrutan eragitea: familia, aisialdia, gazte elkarte eta taldeak, hedabideak, IKT, kultura-sorkuntza, eta abar.

Jakina denez, motibazioa sustatzeko bideetan garrantzi handikoa da euskaraz sortu eta egindako kultura produkzioa. Euskarazko kultura ekoizpenaren kalitate eta garaikidetasuna, hizkuntzaren erakargarritasunerako plus nabaria da.


Motibazioak berezkoa duen sentiberatze lan horretan, jakina, kontuan hartu behar dira euskal hiztunak —euskaldunen ahalduntzea eta jabekuntza helburu—, euskaldun berriak, euskaldun har-



tzaileak, elebakar izan arren euskararen munduak gertu dituzten herritarrak eta oraindik euskara urrun sentitzen dutenak. Betiere, gazteak lehenetsiz, etorkizuneko gizartean modu bateko edo beste teko lidergoa izango dutenak alegia.

*2016ko apirila*

**Euskara 21 Batzorde-atala**  
**Euskararen Aholku Batzordea**  
**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza**



**ERANSKINAK**

# 1

## EUSKARAREN PROIEKZIOA 2036

2036an euskararen egoera nolakoa izango den ezagutzeko aha-legina da lan honen emaitza. Horretarako erabili den iturrietako bat Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak landutako RECLUS ereduaren izan da. Eta, RECLUSekin batera, erabili den informazio estatistikoaren iturri nagusiak honako hauek izan dira: Etxebizitzaren eta Biztanleriaren Zentsua, Biztanleriaren Mugimenduaren Estatistika, Inkesta Soziolinguistikoa, Hezkuntza Estatistikak eta HABEren Datutegia.

1999an egin zen euskararen epe luzeko simulazio ereduaren izen RECLUS. RECLUS ereduaren egitura honako aldagai hauek osatzen dute: demografia, harreman-sareen egitura, hiztun-taldearen jarre-erak eta hizkuntza politika. Aldagai horien arteko eragina modu dinamikoan kalkulatu da urtez urte.

RECLUS ereduak 1991 urtea du abiapuntu. Hortik abiatuz, aldagai exogenoei buruz egindako hipotesiek baldintzatzen dute sistema osoaren etorkizuneko bilakaera.

Eredua, esan bezala, 1999 urtean garatu zen. Egoera nabarmen aldatu da ordutik hona, eta informazio gehiago eta aberatsagoa dago orain eskura. Beraz, RECLUS ereduaren berritua erabili ahal izateko, nahitaezkoa izan da egokitzapenak egitea.

Egokitzapen horiek bi alderdi izan dituzte. Lehenik, biztanleria kalkulatu duen modulua guztiz egokitu da. Bigarrenik, ereduaren parametroak eta funtzioak egokitu dira, 1991-2011 epealdiko informazioa erabiliz. Egokitzapenek bereziki hiru arlotan izan dute eragina: 2000 urtetik aurrera izan den immigrazioaren gorakadan, D ereduaren hazkuntzean eta gazteen arteko erdal elebidunen pisan.

## 1. RECLUSen 2011-2036ko bilakaeraren hipotesiak

RECLUSen aldagai exogenoei dagokienez, honako hipotesi hauek egin dira:

### Ugalkortasuna

1996ko maila oso apala zen, eta orduetik hona gora egin du ugalkortasunak. Azken urteetako igoerak 2026ra arte jarraituko du (2026an UIS = 1,55) eta maila horretan mantenduko da 2036ra arte. 2016-2036 urtealdian, urtero 19.200 jaiotza izango dira batez beste.

### Hilkortasuna

Hilkortasun-tasek nabarmen egin dute behera azken hamarkadetan, eta antzeko joera aurreikusten da ondorengoetan ere, batez ere 80 urtetik gorakoen artean (2036an talde honen hilkortasun-tasa 2011koaren %73 izango da). 2016 eta 2036 bitartean, urtero 19.300 heriotza izango dira batez beste, eta, horren ondorioz, biztanleriaren berezko hazkundea zero ingurukoa izango da.

### Migrazioak

Etorkizunean migrazio tasak apaldu egingo dira, baina 1990eko hamarkadakoak baino nabarmen handiagoak izaten jarraituko dute. Euskal Herritik kanpoko immigrazioa 2001-2011 hamarkadakoak baino %35 apalagoa izango da 2026-2036 hamarkadan. Emigrazio-tasek ere behera egingo dute, baina berriki etorritako pertsona asko itzuliko da jatorrizko lurraldera. Batez beste, 2016 eta 2036 artean, EAEk urtero 1.200 biztanle inguru galduko lituzke migrazioen eraginez.

### Hezkuntza-eskaintza

Aurreko hamarkadetan euskarazko irakaskuntzaren eskaintza handitu egin da, denboran aurrera egin ahala eskaintzak ez zezan

mugatu gurasoen eta ikasleen euskarazko irakaskuntzaren eskaria. Gaur egun lasai asko esan daiteke derrigorrezko hezkuntzan (16 urte artekoan) eskaintzak ez duela mugatzen gizartearen eskaria. Aldiz, unibertsitate eta lanbide-heziketan, eskaintzak oraindik muga izaten jarraitzen du. Eskaintza 2026 urtetik aurrera eskaria asetzeko adinakoa izango dela aurreikusi da simulazioan.

### **Hizkuntza politika**

Hizkuntza politikak euskararen erabilera hainbat arlotan sustatzeko ahalmena du. Egindako simulazioan aurreikusi da 2011 eta 2036 artean hizkuntza politika indartu egingo dela, batez ere arlo formalean (administrazioan eta zerbitzu publikoetan), baina baita ere arlo informalean (zerbitzu pribatuetan eta kultur kontsumoan). Zuzeneko interbentzioek gainerako esparruetan (familian, lagunartean eta lanean) eragin mugatua, ez handia, izango dutela pentsatu da. Oro har, hizkuntza politikaren eragina 2036an 2011 urtekoa baino 2,5 aldiz handiagoa izango dela simulatu da.

### **Euskararen balio subjektiboa**

Euskararen erabileran eta transmisioan, euskal hiztunek euskararekiko duten atxikimenduak garrantzi handia izan du, eta hala izaten jarraitzen du. Ereduak, hizkuntzaren baliagarritasun objektiboa ez ezik, hizkuntzaren balio subjektiboa ere kalkulatu du. Horretarako bi aldagai erabiltzen ditu: lehenak, norberaren portaeran eragiten duen atxikimendua edo zaletasuna jasotzen du (identitatea, afektibitatea, moda...); bigarrenak, gurasoek euskararen etorkizunari buruz duten pertzepzioa jasotzen du, seme-alaben eskolaratzea baldintzatzen duena: D ereduaren gorakada indartsua da horren adierazgarri nagusia.

Egin den simulaziorako bi aldagai horiek oso balio positiboak dituzte oro har. Euskaldunen artean, balio subjektiboaren bi aldagaiak balio oso altuak dituzte simulatu den denboraldi osorako.

Erdaldunen artean ere, seme-alaben hezkuntzan eragina duen pertzepzioari buruzko aldagaia oso altua da. Haien portaeran eragiten duenak, aldiz, balio neutrala du simulazio osoan.

Laburbilduz, bada, hipotesiak, oro har, positiboak dira, eta datozen bi hamarkadetarako RECLUSek aurreikusten duen egoera baikorra da.

RECLUS	
Guztira	2.147.300
0-24 urte	517.500
25-49 urte	654.600
≥ 50 urte	975.200

Biztanleria 2015	
Guztira	2.189.257
0-24 urte	486.199
25-49 urte	781.786
≥ 50 urte	921.272

Iturria: INE, 2016.

Horrekin batera, baina, beste egoera posible batzuk ere kontuan hartu nahi izan dira, biztanleen bilakaerari dagokionez, RECLUS-ek aurreikusitakoak baino zertxobait ezkorragoak. Horretarako, EUSTATEk aurreikusi dituen eszenario demografikoak hartu dira kontuan.

EUSTATEk zapi eszenario demografiko eraiki ditu, hilkortasunaren, ugalkortasunaren eta migrazioen bilakaerari buruzko hipotesiak eginez. Zapi eszenario horietatik bi aukeratu dira. Bi eszenario horiek aukeratzeko irizpideak ere bi izan dira. Batetik, eszenario bakoitza 2015era bitarteko biztanleen datu errealekin konparatu

da (2005ekoekin, 2010ekoekin eta 2015ekoekin), eta desbideratze txikiena izan duten biak aukeratu dira. Bestetik, eszenarioetako batek biztanleen galera adierazi behar zuen eta besteak irabazia. Bi irizpide horiek kontuan hartuta, EUSTATen zazpi eszenario demografikoetatik 2. eta 4. eszenarioak aukeratu dira (horrela izendatuko ditugu aurrerantzean, hots, 2. eszenarioa eta 4. eszenarioa).

Kontuan hartu behar da EUSTATen eszenarioak bost urtetik bost urtera egin direla. Beraz, hizkuntza-aldagaien kasuan, oro har, 2036ko egoerari buruz arituko bagara ere, EUSTATen eszenarioak erabiliz egingo diren aurreikuspenek 2035eko datuak izango dituzte oinarri.

## 2. EUSTATen bi eszenario demografikoen ezaugarriak

EUSTATen bi eszenario demografikoen ezaugarriak honako hauek dira:

### Bigarren eszenarioa

Aurreikuspen honen arabera, **EAEko biztanleriak behera egingo du**. Beherakada hori saldo begetatiboak eragingo du, migrazio-saldoa positiboa izango baita hiru lurraldeetan. Eszenario honek ugalkortasunaren gehikuntza neurritsu bat aurreikusten du 2020 urtera arte, baina jaiotzak ez dira beherakada konpentsatzeko nahikoa izango heriotzen aldean.

Adinari dagokionez, 24 urtetik beherako biztanleriak behera egingo du, bai zenbaki absolutuetan, bai zenbaki erlatiboetan ere. 25-50 urte bitarteko biztanleria heldua ere jaitsi egingo da. 50 urte eta gehiagoko biztanleen pisua, aldiz, handitu egingo da.



2. eszenarioa	
Guztira	1.979.114
0-24 urte	367.473
25-49 urte	581.064
≥ 50 urte	1.030.579

Biztanleria 2015	
Guztira	2.189.257
0-24 urte	486.199
25-49 urte	781.786
≥ 50 urte	921.272

Iturria: INE, 2016.

### Laugarren eszenarioa

Aurreikuspen honen arabera, **EAEko biztanleriak gora egingo du.** Bizitza itxaropena handia izango da eta ugalkortasun-indizea 2,0koa izango da. Hala ere, biztanleriaren hazkundera migrazio-saldo positiboak eragingo du, saldo begetatiboa negatiboa izango baita.

20 urtetik beherako biztanleriak hazkunde apala izango du, ugalkortasunaren hazkunderaren ondorioz. 50 urte edo gehiagoko taldea hazi egingo da. 25etik 50 urte bitarteko biztanleria heldua, berriz, jaitsi egingo da.

4. eszenarioa	
Guztira	2.201.114
0-24 urte	496.892
25-49 urte	595.543
≥ 50 urte	1.108.680

Biztanleria 2015	
Guztira	2.189.257
0-24 urte	486.199
25-49 urte	781.786
≥ 50 urte	921.272

Iturria: INE, 2016.

### 3. Proiekzioaren zehaztasunak


#### 1. Hizkuntza gaitasuna

RECLUSek egindako simulazioaren arabera, EAEko biztanleen %51,4 euskaldunak izango dira 2036an. Kopuru absolututan, ereduak urte horretarako aurreikusitako 2.147.300 pertsonetatik 1.104.100 izango dira euskaldun.

Gaur egun, RECLUSen diseinuak ez du aukerarik ematen euskaraz ondo hitz egiten ez dutenen artean euskaldun hartzaileak eta erdaldunak bereizteko. Bereizketa hori egin ahal izateko oinarria, 2011ko Zentsuko datuak izan dira. Euskaldunak %50 inguru (%48tik %51ra) dituzten eremu geografikoak aukeratu dira, 2036rako egin diren hiru aurreikuspenak ehuneko horren inguruan daudelako. Horietatik euskaldun direnak kenduta, haztatu gabe atera da elebidun hartzaileen eta erdaldunen batez bestekoa. Eragiketa hori biztanle guztiak kontuan hartuta eta adin-taldez adin-talde egin da. Azkenik, pisu horiek simulazioak emandako biztanleriari aplikatu zaizkio. Gauza bera egin da EUSTATEk aurreikusitako eszenarioetan.

Beraz, RECLUSen arabera, esan bezala, 2036an EAEko biztanleen %51,4 euskaldunak izango dira, %16,5 elebidun hartzaileak eta %32,1 erdaldunak (ikus grafikoa).

### Hizkuntza-gaitasuna bi eszenario demografikoen eta RECLUSen arabera. EAE, 2036 (%)




EUSTATEk aurreikusitako 2. eszenario demografikoaren arabera, 2036an EAEko biztanleak 1.979.114 izango dira. Horietatik %48 euskaldunak izango dira, %17,1 elebidun hartzaileak eta %34,9 erdaldunak (ikus grafikoa).

Eta, azkenik, EUSTATEk aurreikusitako 4. eszenario demografikoaren arabera, 2036an EAEko biztanleak 2.201.114 izango dira. Horietatik %49,5 euskaldunak izango dira, %16,7 elebidun hartzaileak eta %33,8 erdaldunak (ikus grafikoa).

Hizkuntza-gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren ataletan agertuko diren grafikoeetan eta tauletan, 20 urteko bilakaera nolakoa izan

den argiago ikus dezagun, 2011ko Zentsuko datuak ere azalduko dira, horiek baitira eskura ditugun azken datuak. Hizkuntza-gaitasunaren aldagaia Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Mapa Soziolinguistikoa egiteko erabiltzen duena da. Aldagaiak hiru kategoriatu: euskaldunak (elebidunak), euskaldun (elebidun) hartzailleak eta erdaldunak. Proiekzioak egiteko aldagai hori erabili da. Hori dela eta, 2011ko datuei dagokien unibertsoa EAEko 5 urte edo gehiagokoa da. Lehen hizkuntzaren kasuan berdin jokatu da.

**Hizkuntza-gaitasuna bilakaera, eszenario desberdinen arabera.  
EAE, 2011-2036 (%)**



Hizkuntza-gaitasuna, 2036 (%)				
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
2. eszenarioa	1.979.114	48,0	17,1	32,2
4. eszenarioa	2.201.114	49,5	16,7	33,8
RECLUS	2.147.300	51,4	16,5	32,1

Hizkuntza-gaitasuna*, 2011 (%)				
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
	2.056.136	36,4	19,3	44,3

\* Oharra: 5 urte edo gehiagoko biztanleak.


Hizkuntza-gaitasuna, 2036				
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
2. eszenarioa	1.979.114	950.043	337.559	691.515
4. eszenarioa	2.201.114	1.089.165	366.852	745.098
RECLUS	2.147.300	1.102.915	355.532	688.853

Hizkuntza-gaitasuna*, 2011				
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
	2.056.136	749.182	396.922	910.032

\* Oharra: 5 urte edo gehiagoko biztanleak.

Adinari dagokionez, hiru adin-talde bereizi dira: 0-24 urte, 25-49 urte eta 50 urte edo gehiago. RECLUSek eginiko simulazioaren arabera, lehenengo adin-taldean (0-24 urte) euskaldunak % 83,4 izango dira, 25 eta 49 urtekoen artean % 59,5, eta hirugarrenean, 50 edo gehiagokoa, % 28,9. Hogeita bost urteko adin-taldeak egin

direla kontuan hartuta, ez da aurreikusten eszenario batetik bestera gorabehera handirik adin-taldeetan. Hortaz, adinaren arabera RECLUSek aurreikusitako ehunekoak aplikatu zaizkie EUSTATEN 2. eta 4. eszenarioei.



Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2036 (%)				
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
0-24 urte	100	83,4	9,3	7,3
25-49 urte	100	59,5	19,4	21,1
≥ 50 urte	100	28,9	18,5	52,6

Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera*. 2011 (%)				
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
0-24 urte	100	73,2	15,5	11,3
25-49 urte	100	33,9	26,9	39,2
≥ 50 urte	100	22,6	13,4	64,0

\* Oharra: 5 urte edo gehiagoko biztanleak.

2. eszenarioa. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2036				
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
0-24 urte	367.473	306.472	34.175	26.826
25-49 urte	581.064	345.733	112.726	122.605
≥ 50 urte	1.030.579	297.837	190.657	542.085
<b>Guztira</b>	<b>1.979.114</b>	<b>950.043</b>	<b>337.559</b>	<b>691.515</b>

4. eszenarioa. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2036				
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Erdaldunak
0-24 urte	496.892	414.408	46.211	36.273
25-49 urte	595.543	354.348	115.535	125.660
≥ 50 urte	1.108.680	320.409	205.106	583.166
<b>Guztira</b>	<b>2.201.114</b>	<b>1.089.165</b>	<b>366.852</b>	<b>745.098</b>

<b>RECLUS. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera. 2036</b>				
	<b>Guztira</b>	<b>Euskaldunak</b>	<b>Euskaldun hartzailak</b>	<b>Erdaldunak</b>
0-24 urte	517.500	431.595	48.128	37.778
25-49 urte	654.600	389.487	126.992	138.121
≥ 50 urte	975.200	281.833	180.412	512.955
<b>Guztira</b>	<b>2.147.300</b>	<b>1.102.915</b>	<b>355.532</b>	<b>688.853</b>

<b>Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera*. 2011</b>				
	<b>Guztira</b>	<b>Euskaldunak</b>	<b>Euskaldun hartzailak</b>	<b>Erdaldunak</b>
0-24 urte	376.059	275.187	58.138	42.734
25-49 urte	836.782	283.690	225.047	328.045
≥ 50 urte	843.295	190.305	113.737	539.253
<b>Guztira</b>	<b>2.056.136</b>	<b>749.182</b>	<b>396.922</b>	<b>910.032</b>

\* Oharra: 5 urte edo gehiagoko biztanleak.


## 2. Lehen hizkuntza

Bi bide erabili ditugu lehen hizkuntza kalkulatzeko. Batetik, 2011ko Zentsuko datuak korrituta aplikatuko dizkiegu 25 urte edo gehiagokoei. Bestetik, RECLUSen hizkuntza gaitasuneko datuak aplikatuko dizkiegu 0-24 urte bitartekoei (suposatuko dugu euren gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera izango dela euren lehen hizkuntza).

Lehen Hizkuntza 2036an zein izango den jakiteko, 2011ko Zentsuko lehen hizkuntzako datuetatik abiatu, eta 25 urte egingo dugu aurrera. Horrela, 2011n 0-4, 5-9, 10-14 urte zeuzkatenek 2036an 25-29, 30-34, 35-39... urte izango dituzte. Lehen hizkuntza ez da aldatzen bizi osoan zehar.



**Lehen hizkuntzaren bilakaera bi eszenario demografikoen eta RECLUSen arabera. EAE, 2011-2036 (%)**




Jarraian, 0-24 urte bitartekoen lehen hizkuntza zein izango den zehaztu behar dugu. Horretarako, RECLUSek hizkuntza gaitasunari buruz ematen dizkigun datuak hartuko ditugu, eta adin-tarte hori dutenen gurasoen hizkuntza gaitasunetik abiatuko gara.

0-24 urte bitartekoen gurasoek 25-50 edo 50 urte baino gehiago dituzte. Badakigu atzerritarrak ez diren amen batez besteko adina 34 urte dela gaur egun. Aitarena zertxobait altuagoa izango da. Horregatik, gurasoen bi herenek 25-50 urte bitartean izango dituzte, eta heren batek, 50 urte baino gehiago. RECLUSen arabera, 25-50 urte bitartean dituztenen % 59,5ek euskaraz jakingo du, eta 50 urte baino gehiagokoen % 28,9k.

Horrela, haur horien gurasoen adina kontuan hartuta, gurasoen bi herenen euskara gaitasuna hartuko dugu aintzat (% 59,5en bi heren: % 39,3), eta 50 urte baino gehiagoko gurasoen euskara gaitasunaren heren bat (% 28,9ren herena: % 9,5). Biak batuz (% 39,3 gehi % 9,5), % 48,8 da 0-24 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoen euskara gaitasuna, eta ehuneko hori egotziko diegu euren seme-alabei.

Gaur egun ezagutzen ditugun etxeko transmisio datuen arabera, euskaldunek ia %100 transmititzen dute euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera). Suposatuz datozen urteotan euskara transmititzen jarraituko dutela, 0-24 urte bitartekoen % 48,8k euskara izango du lehen hizkuntza: kasu batzuetan euskara soilik, eta beste batzuetan gaztelaniarekin batera.



EUSTATen proiektzio demografikoaren 2. eta 4. eszenarioetan eta RECLUSen, 25 urte edo gehiagokoei Zentsuko datuak korrituta aplikatuko dizkiegu, eta 0-24 urte bitartekoei, RECLUSek gura-soentzat aurreikusten duen hizkuntza gaitasuna. Ondorioz, honako hau geratuko zaigu:

<b>Lehen hizkuntza adinaren arabera, 2036 (%)</b>			
	<b>Guztira</b>	<b>Euskara + biak</b>	<b>Erdara</b>
0-24 urte	100	48,8	51,2
25-49 urte	100	33,0	67,0
≥ 50 urte	100	20,9	79,1
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>30,5</b>	<b>69,5</b>

<b>Lehen hizkuntza adinaren arabera, 2011 (%)</b>			
	<b>Guztira</b>	<b>Euskara + biak</b>	<b>Erdara</b>
0-24 urte	100	29,5	70,5
25-49 urte	100	20,4	79,6
≥ 50 urte	100	22,6	77,4
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>23,6</b>	<b>76,4</b>

<b>Lehen hizkuntza, 2036 (2. eszenarioa)</b>			
	<b>Guztira</b>	<b>Euskara + biak</b>	<b>Erdara</b>
0-24 urte	367.473	179.327	188.146
25-49 urte	581.064	191.751	389.313
≥ 50 urte	1.030.579	215.391	815.188
<b>Guztira</b>	<b>1.979.116</b>	<b>586.469</b>	<b>1.392.647</b>

<b>Lehen hizkuntza, 2036 (4. eszenarioa)</b>			
	<b>Guztira</b>	<b>Euskara + biak</b>	<b>Erdara</b>
0-24 urte	496.892	242.483	254.409
25-49 urte	595.543	196.529	399.014
≥ 50 urte	1.108.680	231.714	876.966
<b>Guztira</b>	<b>2.201.115</b>	<b>670.727</b>	<b>1.530.388</b>

<b>Lehen hizkuntza, 2036 (RECLUS)</b>			
	<b>Guztira</b>	<b>Euskara + biak</b>	<b>Erdara</b>
0-24 urte	517.500	252.296	265.204
25-49 urte	654.600	216.018	438.582
≥ 50 urte	975.200	203.817	771.383
<b>Guztira</b>	<b>2.147.300</b>	<b>672.131</b>	<b>1.475.169</b>

<b>Lehen hizkuntza*, 2011</b>			
	<b>Guztira</b>	<b>Euskara + biak</b>	<b>Erdara</b>
0-24 urte	509.184	150.222	358.962
25-49 urte	703.657	143.321	560.336
≥ 50 urte	843.295	190.824	652.471
<b>Guztira</b>	<b>2.056.136</b>	<b>484.367</b>	<b>1.571.769</b>

\* Oharra: 5 urte edo gehiagoko biztanleak.

### 3. Hezkuntza

Hezkuntzari buruz dihardugunean, araubide orokorreko irakas-kuntza ez unibertsitarioari buruz arituko gara. Hau da, kontuan hartuko diren ikasmailak honako hauek dira: Haur Hezkuntza (HH), Lehen Mailako Hezkuntza (LMH), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Batxilergoa, Erdi Mailako Lanbide Heziketa eta Goi Mailako Lanbide Heziketa.

Ikasmaila horietan hizkuntza ereduaren bilakaera zein izango den aurreikusteko egin diren hipotesiak honako hauek dira:

- ▶ Unibertsitate aurreko ikasketetan, gurasoek aukeratzen dute ikaslea zein hizkuntza eredutan matrikulatu. Hori horrela da gaur egun, eta aurrerantzean ere horrela izango dela aurreikusi da.
- ▶ Eskaintzarik baldin badago, ikasleak ez du hizkuntza ereduaren aldatzen unibertsitate aurreko ikasketen prozesu osoan.
- ▶ 2036an, hizkuntza ereduaren eskaintzak ez du mugarik izango Haur Hezkuntzan, Lehen Mailako Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan.
- ▶ Lanbide Heziketan, D ereduaren eskaintza mugatua izan daiteke oraindik; B ereduak, aldiz, zabalkunde handia izango du.

Azken hamarkadan, derrigorrezko hezkuntzan (0-16 urte) hizkuntza ereduak izan duten bilakaeran antzemandako joerak honako hauek dira:

- ▶ D ereduak etengabe egin du gora.
- ▶ A ereduak behera egin du, D ereduak gora egin duen ia neurri berean.
- ▶ B ereduak ere gora egin du, baina apalago. Azken ikasturteetan, gainera, B ereduak behera egin du derrigorrezko hezkuntzako ikasmaila guztietan.
- ▶ X ereduak %0,6ren inguruan egonkortu da.

2036ra bitartean, joera horiek neurri batean jarraituko dutela aurreikusi da. B ereduak Batxilergoan eskaintza erabatekoa izango du eta Lanbide Heziketan zabala.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Mailako Hezkuntzako 2015/2016 matrikulazio-datuetatik abiatuta, eta azken hamarkadako ma-

trikulazioa aintzat hartuz, araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioko ikasleen %81,3k D eredian ikasiko du, %15,1ek B eredian, %3,0k A eredian eta %0,6k X eredian.

<b>Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitaria. EAE, 2035/2036 (1)</b>			
<b>Hizkuntza-ereduak</b>			
<b>D</b>	<b>B</b>	<b>A</b>	<b>X</b>
81,3	15,1	3,0	0,6

Aldaketarik handiena Batxilergoan eta Erdi zein Goi Mailako Lanbide Heziketan gertatuko da. B ereduak, bere eskaintza zabaltzean, gora egingo du nabarmen. Horren ondorioz, bi ikasmaita horietan A ereduak behera egingo du.

Bigarren eszenario bat ere aurreikus daiteke. Bigarren honetan, 16 urte edo gutxiagoko gazteen pisu demografikoa are txikiagoa izango da (EUSTATen 2. eszenarioan hala aurreikusten da), eta horren ondorioz D eredia zertxobait gutxiago haziko da, B ereduaren mesedetan. Horrela, bigarren eszenario horretan irakaskuntza ez unibertsitarioko ikasleen %79,0k D eredian ikasiko du, %17,4k B eredian, %3,0k A eredian eta %0,6k X eredian.

<b>Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitaria. EAE, 2035/2036 (2)</b>			
<b>Hizkuntza-ereduak</b>			
<b>D</b>	<b>B</b>	<b>A</b>	<b>X</b>
79,0	17,4	3,0	0,6

Aurreko bi eszenario horietan, A ereduaren matrikulazioa %3ren inguruan egonkoritu da. Jarraian aurkeztuko den eszenarioan, al-diz, A ereduak, hizkuntza ereduak finkatu zirenetik gaur egunera bitartean gertatu den bezala, datozen urteetan behera egiten jarraituko duen hipotesia hartu da. 2015/2016 ikasturtean, Haur

Hezkuntzan matrikulatutako ikasleek gutxienez bost urte eramango dituzte irakaskuntza ez unibertsitariotik kanpo 2035/2036 ikasturtean. 2015/2016 ikasturtean, Haur Hezkuntzako ikasleen %3,1 matrikulatu dira A ereduari (Z1 edo lehen zikloa, 0-3 urtekoen artean %2,6). Hortik abiatuta, eta azken bost ikasturteetan A ereduak izan duen bilakaeraren batez bestekoa aplikatuz, 2035/2036 ikasturtean, irakaskuntza ez unibertsitarioan A ereduari matrikulatutako ikasleak %2 izango dira (Z1 edo lehen zikloa, 0-3 urtekoak, bakarrik kontuan hartuz gero %1,7). A ereduaren galera B ereduak irabaziko luke nagusiki. Beraz, emaitzak honako hauek lirateke:

<b>Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitaria. EAE, 2035/2036 (1)</b>			
<b>Hizkuntza-ereduak</b>			
<b>D</b>	<b>B</b>	<b>A</b>	<b>X</b>
81,3	16,1 (16,5)	2,0 (1,7)	0,6

\*Parentesi artean Z1 edo lehen zikloa kontuan hartuz gero.


<b>Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitaria. EAE, 2035/2036 (2)</b>			
<b>Hizkuntza-ereduak</b>			
<b>D</b>	<b>B</b>	<b>A</b>	<b>X</b>
79,0	18,4 (18,7)	2,0 (1,7)	0,6

\*Parentesi artean Z1 edo lehen zikloa kontuan hartuz gero.

<b>Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitaria. EAE, 2015/2016</b>			
<b>Hizkuntza-ereduak</b>			
<b>D</b>	<b>B</b>	<b>A</b>	<b>X</b>
66,3	18,6	14,5	0,6

**Iturria:** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016.

Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioko eredu bilakaera eszenario desberdinen arabera. EAE, 2015/2016-2035/2036 (%)



#### 4. Helduen euskalduntzea

Atal honetan, 2036an euskaltegiek zenbat pertsona euskaldunduko duten kalkulatzeko saiakera egingo da. Hau da, abiapuntua A2 edo txikiagoa izanik, zenbatek lortuko duten gutxienez B1 maila.

B1 kodeaz ezagutzen den Europako Markoaren maila da euskaraz hitzun kontsideratzeko jo izan den gutxieneko maila edo atalasea. Europako Markoak hitzun «independente» deitzen dio baita ere. Erabiltzaile independentea gai da eguneroko testuinguru ezaguetan eta maila bereko solaskideekin elkarrizketak izateko, gai



orokorra eta ohikoa izan eta xedea informazioa trukatzea denean. Era berean, gai da lagunei, senideei eta ikaskideei edo lankideei instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatze-ko eta gertaeren kontaketa laburrak egiteko. Gai da, baita ere, bere iritziak labur-labur emateko eta bere asmoak azaltzeko.

Bestalde, esan bezala, pertsona horien abiapuntuak A2 edo txikia-  
goa izan behar du. Euskara ikasten hasten den jendearen artean, asko dira ezer ez dakitenak, baina asko dira, baita ere, euskalte-  
gira lehenbizikoz joaten direnean zertxobait badakitenak, hemen bizi direlako edo hizkuntzarekin kontakturen bat izan dutelako eta ezagutza minimo bat dutelako, baina hiztun independente izan gabe.

2036ko proiektioaren abiapuntua azken bost ikasturteotako emaitza izan da. Kalkulua egiteko hiru eragiketa egin dira:

1. 2010/2011tik 2014/2015era bitartean, zenbatek eskuratu duen B1 maila edo handiagoa.
2. Giza multzo horretatik euskaltegira lehenbiziko aldiz joan-  
dakoan A2 maila edo beheragokoa zutenak bakarrik aukeratu. Beste modu batera esanda, deskontatu egin dira A2-tik gora sartu zirenak (garai bateko 5. urratsean edo 6. urratsean hasitakoak).
3. Bost ikasturte horietako urtez urteko emaitzetatik ezabatu egin dira pertsona errepikatu batzuk. Esaterako, urte batean B1 eta hurrengoan B2 gainditu dutenak behin bakarrik zenbatu dira.

Hortaz, 2010/2011tik 2014/2015era bitartean 58.351 pertsonak gain-  
ditu dute B1 edo gorakoko mailaren bat. Pertsona horien ibilbide historikoa aztertuta, A2 mailan edo txikiagoan hasitakoak 22.883 izan dira. Azken bost ikasturteotako batez bestekoa eginez gero, urtean 4.577 ikaslek lortu dute B1 maila edo handiagoa, abiapun-  
tua A2 maila edo txikiagoa izanik.

Ikasle horien adinari dagokionez, azken bost ikasturteotan B1 gairitu dutenen batez besteko adina 40 urtekoa da. Beheragoko mailatan batez besteko adina handiagoa da, eta gorako mailatan txikiagoa.

2036ko proiektzioa egiteko hipotesiak honako hauek dira:

1. Euskaltegiaren bidez euskalduko den ikasle-kopurua oro har mantendu egingo da hogeitun urte barru.
2. Euskaltegiak euskalduko dituen ikasleen batez besteko adinak gora egingo du nabarmen. Hala ere, adinaren gorakada hori konpentsatu egingo da neurri txiki batean euskaltegiaren euskara ikasteko matrikulatuko diren etorkinekin, horiek gazteagoak izango direlako. Kontuan hartu behar da, azken urteotako joeraren arabera, euskara ikastera euskaltegiara doazen etorkinen kopuruak gora egingo duela, bai kopuru absolutuetan bai ikasle guztiekiko portzentajearen, 2010/2011tik 2014/2015era bitartean %16,6 eta kopuru absolutuetan 287 hazi baita etorkinen kopurua, horietatik gehien-gehienak hasiera mailako ikasleak direlarik.

Hortaz, 2035/36 ikasturtean EAeko euskaltegiak goian aipatutako perfileko 4.500 ikasle inguru euskalduko dituzte. Hau da, 4.500 pertsona inguruk lortuko dute B1 maila edo handiagoa, abiapuntua A2 maila edo txikiagoa izanik.

Adinari dagokionez, eszenario hau aurreikusten da:

- Kalkulua egiteko, 2010/2011 eta 2014/2015 bitartean A1 mailan matrikulatutako ikasleen adinaren batez bestekoak hartu dira kontuan. Bost ikasturte horietan ikasleen adinak 0,24 urte egin du gora ikasturte batetik bestera. Bilakaera esponentziala egiten bada, 2035/2036 ikasturtean, euskara ikasten arituko diren ikasleen batez besteko adina 46,6 urte izango da. Dena dela, eszenario horretan, kontuan hartu behar da euskara

ikasten arituko diren ikasle etorkinen pisua gaur egunekoa baino handiagoa izango dela. Gaur egun, A1 mailan matrikulatutako ikasleen artean etorkinak % 26,5 dira, eta batez besteko adina 35,6 urte. 2035/2036 ikasturtean, gutxienez % 30 izango direla aurreikusten da, eta haien batez besteko adina gaur egungoaren antzekoa. Hortaz, euskaltegian euskara ikasteko matrikulatuko diren ikasleen batez besteko adina 46,2 urtekoa izango da.

- ▶ Nolanahi ere, hogeitau urte barru, hasierako eta oinarrizko mailatan euskaltegian euskara ikasteko matrikulatuko den ikasle kopurua gaur egunekoaren antzekoa izan dadin, motibazioak ere antzekoa izan beharko du. Baina badakigu motibazio instrumentala txikiagoa izango dela adin horretako ikasleen artean. Hortaz, beste era bateko motibazioak indartu egin beharko dira, gizartean maila horiek balioan jartzeko sustapen lana sendotuz.

*2016ko apirila*

# 2

## EUSKARAREN GAINEKO DISKURTSO PARTEKATURAKO ZORU KOMUNAREN OINARRIAK

### ATARIKOA<sup>1</sup>

Modu batera edo bestera gehiagotan ere adierazi izan dudan konbikzio bat azpimarratu nahi nuke, hain zuzen ere konbikzio hori dagoelako jarraian azaltzen denaren abiapuntuan.

Honako hauxe da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aipaturiko konbikzioa: euskara biziberritzeko prozesuan eraginkorrak izateko, gauza asko behar ditugu, jakina da hori; behar ditugu, besteak beste, arau eta politika egokiak, plangintza egingarriak eta haiek gauzatzeko askotariko bitartekoak, eta behar ditugu, nola ez, ezagutza zientifikoa eta lankidetzza publiko-pribatua. Baina behar dugun horren guztiorren oinarri nagusiak, bi dira, biak ezinbestekoak: bata, herritarren atxikimendua (gogoia, nahia), eta bestea, adostasun sozial eta politiko zabala; askotarikoen arteko adostasun sozial eta politiko zabala, zabala kuantitatiboki, eta zabala kualitatiboki.

Badakigu, noski, adostasuna ez dela nahikoa, baina hori bezain argi dakigu adostasuna ezinbestekoa dela aurrera egiteko.

Ondo dakigunez, euskarak jauzi handia egin du Euskadiko Autonomia Erkidegoan azken hiru hamarkadotan, eta jauzi hori egiteko,

---

1. Eusko Jauriaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrika Galparsorok «Euskararen gaineko diskurtso partekatuaren zoru komunerako oinarriak» Donostian 2016ko otsailaren 4an aurkezpen publikoan azaldu zituenean egin zuen mintzaldia da «Atarikoa».

nahitaezkoa izan da adostasun sozial eta politiko zabala. Adostasun horren babes eta legitimaziorik gabe, ez genukeen euskara biziberritzeko eraiki dugun corpus juridiko-normatiboa eraikiko, eta ez genituzkeen hainbat arlotan askoren artean eta askoren ahalegin partekatuaren eskutik garatu ditugun politikak garatuko.

Adostasun sozial eta politiko hori zaindu, eguneratu, elikatu eta indarberitu egin behar da.

Etengabea da lan hori. Eta lan horretan berealdiko garrantzia dauka diskurtsoak, euskararen gaineko diskurtsoak esan nahi da.

Aspaldiko kezka eta eginkizuna da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarentzat euskararen gaineko diskurtsoarena. Gogora ekarri behar dut nahitaez Euskara 21 prozesu zabal eta arrakastatsua. *Euskara 21: XXI. mendearen hasierarako hizkuntza-politikaren oinarriak. Itun berri baterantz* dokumentuan jasotzen da prozesu haren emaitza, diskurtso berriua, Euskararen Aholku Batzordeak 2009an aho batez onartu zuena eta gero Eusko Legebiltzarrak ere onartu zuena. Hari segida emanez, 2012an, ESEP etorri zen: hau ere, Euskararen Aholku Batzordeak egina eta onartua ez ezik, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak bi alditan eta Eusko Legebiltzarrak ere bere egin zutena.

Eta legealdi honetan, hasiera-hasieratik, EGOD egitasmoa (Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa) martxan jarri genuen. EGOD martxan jartzeko izan genuen arrazoia eta helburua oso garbi laburbiltzen da, hain zuzen ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskararen Aholku Batzordeari proposatu zion lan-programan, hitzez hitz hauxe esaten baita: «euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berriua eta bateratze bidean jartzea». Eta gehiago argitzeko, hauxe gaineratu genuen: «euskararen inguruko diskurtsoak bateratze bidean jartzeko ahaleginak, adostasun sozial eta politiko zabal baten premia onartzea eta mamitzea eskatzen du». Euskara 21 Batzordea-

ri 2015eko azaroaren 6an aurkeztu zitzaion EGOD egitasmoaren azken txostena, eta Euskararen Aholku Batzordeak azaroaren 11n egindako Osoko Bilkuran ezagutu zuen txosten hori bera.

Une honetan, Euskararen Aholku Batzordeak aztergai eta eztabaidagai dauka «Eta hemendik aurrera zer?» izeneko dokumentua, datozen bi hamarkadei begira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza politikaren oinarri eta lehentasunen markoari buruz prestatutako dokumentua. Dagoeneko hiru batzarretan izan du aztergai eta eztabaidagai dokumentua Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde bereziak, eta hogeita hamarretik gora ekarpen jaso dira. Datozen hilabeteetan izango da eztabaidaren azken buruko dokumentua.

Diskurtsoaren garrantziaz jabetuta egindako ahalegin gehiago ere badira gure artean. Horien artean azpimarragarria irizten dut Topalabeak 2015eko udan egindako «Topaberri 66: berrikasi eta berrikusi» izenburua duen dokumentua.

Gaur argitaratzen duguna, ordea, iturburua EGODen duen lanketa baten emaitza da. Izan ere, ikerketa ugari egin dira EGODen egitasmoaren barruan, eta, ikerketa horietako informazioa landuz, diskurtso ezberdinen arteko intersekzioa izan litekeenaren eduki zehatzak eskuratu ditugu.

Izan ere, gogora dezagun EGOD egitasmoa abian jartzerakoan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak adierazi zuen eta Euskararen Aholku Batzordeari proposatu zion helburu zehatza zein zen: «euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzea». Gizarte anizkoitz orotan ohikoak eta berezkoak diren diskurtso ugarien topagune edo zoru komuna sendotzeko oinarriak identifikatu eta finkatzeko elementuak eskaintzea du, beraz, bi urtetan garatu den EGOD egitasmoak helburu, eta hain zuzen ere EGODen jasotako Intersekzioko eduki horiek izan litezke hain zuzen ere euskararen gaineko diskurtso


partekaturako zoru komunaren oinarriak. Horiek dira argitalpen honetan jasotzen direnak; horiek eta, baita ere, zoru komunetik urrun —batzuk oso urrun, beste batzuk ez hain urrun— daudenak.

Horiek dira, hain zuzen ere, zure esku jartzen ditugunak, euskara biziberritzeak ezinbestekoa duen gogoeta eta eztabaida publiko dokumentatua aberasteko asmoz.

## ZORU KOMUNAREN OINARRIAK

EUSKARAREN GAINEKO OINARRIZKO DISKURTSOEN LANKETA —EGOD egitasmoa (2015/10/15)— izeneko txostenak jasotzen ditu euskararen inguruko bost diskurtso nagusiak, era honetara izendatuak, beren ezaugarri nagusien arabera: errespetuaren diskurtsoa, balio pragmatikoarena, sustatzailea, aldarrikatzailea eta mesfidatia. Jarraian datorren grafikoak erakusten du diskurtso horien onarpen maila.

Bost diskurtso horietako bakoitza zenbait esaldik osatua da (guxiena dituen diskurtsoak 4 esaldi ditu, eta gehiena dituenak 8), eta esaldi bakoitzak onarpen maila ezberdina du, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak EGOD egitasmoaren barruan berariaz egindako ikerketa kuantitatiboaren arabera. Guztira, 33 esaldi. EGODEk argiro azaltzen duenez, diskurtso horiek ez dira elkarren artean baztertzaileak. Hortaz, herritarrek bat egin dezakete, aldi berean, diskurtso baten baino gehiagoren edukiekin. Hemen egin duguna da, diskurtsoetatik harago jota, zehaztu zeintzuk diren gizartearen gehiengo zabal batek aldi berean partekatzen dituen ideia (galdera edo esaldi) nagusiak. Zehaztapenariketa hori da jarraian datorrena.



## Diskurtso partekaturako zoru komunaren onarpen langa

Ariketa horren ondorioen arabera, badago diskurtso partekaturako zoru komun bat, non sentsibilitate ezberdinetako hainbat herritarrek, elkarrekiko errespetutik abiatuz, euskararen aldeko jarrerara eta babesa argiro adierazten dituzten.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zoru komun hori sendotzearen premia nabarmena ikusten du. Kontua ez da, jakina, eta hau ere garbi esan beharra dago, inoren diskurtsoa, inoren ikusmoldea ezabatzea. Hurkoaren diskurtsoa, eta hurkoaren hizkuntza hautua eta eskubidea errespetatzen duen edozein diskurtso da zilegi eta onargarria. Bizikidetzaren exigentzia da hori. Baina bizikidetzak eskatzen du, era berean, oinarriak partekatzea, baita hizkuntza kontuetan ere.

Zoru komunaren oinarrien bila, aukeratu dira bi herenetik —hots, %66,6tik— gorako babes (gutziz + nahikoa ados)<sup>2</sup> lortu duten esaldiak, esaldi horiek osatutako bost diskurtso nagusietakoak izan ala EGODen baitako ikerketako bestelako galderetatik ateratako ideiak izan (gogoratu EGODen baitan egin diren ikerketa ugarien artean inkesta kuantitatibo bat egin zuela Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak). Bi heren edo hirutik bi konbentzio bat da, baina uste dugu bi heren gutxieneko neurri edo langatzat hartzea badela askotarikoen adostasun sozial eta politiko zabalaren isla. Onarpen langa, beraz, bi herenekoa da.

- 
2. Aurrerago datorren grafikoan, galdera edo esaldiekiko adostasuna islatzeko erantzuna preseski «Gutziz + Nahikoa Ados» ez denean, dagokien erantzun mota zein den argitzeko horrela identifikatu dira esaldi horiek:

[\*] Erantzun aukerak honakoak izan dira: Oso handia, Nahikoa handia, Erdipurdikoa, Nahikoa txikia, Ez dut batere interesik, Ed/ee.

[\*\*] Erantzun aukerak honakoak dira: Garrantzi handia, Nahikoa garrantzi, Erdipurdikoa, garrantzi gutxi, garrantzirik ez, Ed/ee.

[\*\*\*] Erantzun aukerak honakoak dira: Etorkizunean euskaraz bakarrik egitea nahi du; Bietan egitea nahi du, euskaraz orain baino gehiago; Bietan egitea nahi du, orain bezala; Bietan egitea nahi du, euskaraz orain baino gutxiago; Etorkizunean gaztelaniaz bakarrik egitea nahi du; Ed/ee

## 21 esaldi onarpen langatik gora

Ondoren bildu dira soilik bost diskurtsoetako 33 esaldi horietan guztietan aldi berean bi hereneko onarpen langa gainditu duten 17 esaldiak eta onarpen langa hori gainditu duten beste lau esaldi: guztira 21 dira. Bost diskurtsoetatik lautan daude bi hereneko langa gainditu duten esaldiak: diskurtso mesfidatia deiturikoan ez dago langa horretara iristen den esaldirik.

Badira, nola ez, desadostasun eta eztabaidagai diren hainbat ikuspuntu. Diskurtsoen eta 33 esaldien artean badira zoru komuniketik gehiago edo gutxiago urruntzen direnak. Baina herritarren gehiengo oso zabal batek bere egiten ditu elkarren arteko errespetua, euskararen balio pragmatikoa eta euskararen aldeko sustapena.

Ariketa honen bidez, beraz, honako informazioak eskuratu ditugu:

1. Zein diren gutxienez gizarteko bi herenek ontzat ematen dituzten ideiak.
2. EAEko biztanleen zein proportziok partekatzen dituen aldi berean esaldi horiek guztiak. Beste hitzetan esanda, esaldi horiekin adostasuna adierazi dutenen intersektzioa.

Gutxienez gizarteko bi herenek ontzat ematen dituzten ideiak										
Zk	Gald. zk	Diskurtsoa	Galderak eta esaldiak	A*	B	C	D	E	F	G
1	p1403		Haurrek ingelesa jakitearen garrantzia? [*]	96	72	24	1	1	1	1
2	p1402		Haurrek gaztelania jakitearen garrantzia? [*]	95	70	25	2	2	0	1
3	p1401		Haurrek euskara jakitearen garrantzia? [*]	93	73	20	2	3	1	1
4	p1905	Errespet.	Bakoitzak du eskubidea zein hizkuntza nahiago duen aukeratzeko, besteen aukera ere errespetatuz	93	70	23	1	2	2	2
5	p2601	Errespet.	Euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua bultzatu behar da	93	75	18	1	1	1	5
6	p2106	Errespet.	Saltoki, enpresa eta administrazioan bezeroen nahia errespetatu beharko litzateke euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko	90	63	27	3	2	2	3
7	p2602	Sustatza.	Euskara ez dakitenek ere euskararen normalizazioa babestu beharko lukete	87	62	25	3	1	1	7
8	p24	Sustatza.	Zuretzat, zenbateko garrantzia du euskaldunek nahi duten lekuetan euskara erabiltzeko aukera izateak? [*]	87	58	29	2	4	2	5
9	p27	Sustatza.	Guztion hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio bat lortzearen garrantzia [**]	86	66	20	1	2	2	10
10	p1906	Pragmat.	Gaur egun, euskaraz jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati	86	52	34	4	5	3	2
11	p2303	Errespet.	Guztiok, euskaraz ez dakitenek ere, harro sentitu beharko genuke hemen, eta ez beste inon, euskara dugulako	84	57	27	4	4	3	5
12	p2301	Sustatza.	Garrantzitsua litzateke Euskadiko biztanle gehienek euskara ikastea	83	51	32	5	4	4	3
13	p2603	Errespet.	Euskaldunek ulertu behar dute pertsona askok ezin dutela euskara ikasi	80	52	28	3	5	4	7
14	p1909	Pragmat.	Euskara jakiteak laguntzen du hemengo gizartean eta kulturaren integratuago egotean	79	45	34	5	7	6	3
15	p2103	Pragmat.	Euskara gero eta beharrezkoagoa da lana eskuratzeko	76	39	37	7	8	4	5
16	p2306	Errespet.	Ahaleginak egin behar dira euskara eta gaztelania maila berean egon daitezen, ez bata bestearen gainetik	75	45	30	4	8	6	6
17	p2101	Aldarr.	Ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea	75	39	36	6	8	6	5
18	p2604	Sustatza.	Erdaldunek, euskaraz ez ulertu arren, onartu behar dute euskaldunek beraien artean euskaraz egitea	71	49	22	5	9	9	7
19	p2104	Aldarr.	Zenbait lanpostutarako euskara jakitea exijitu beharko litzateke	71	42	29	6	10	8	5
20	p18		Orokorrean, nolakoa da euskararekiko duzun interesa? [*]	69	39	30	13	9	8	1
21	p2022	Aldarr.	Etorkizunean euskararen presentzia (erabilera) [***]	68	13	55	23	1	1	6

Grafikoan, galdera edo esaldiekiko adostasuna islatzeko erantzuna preseski «Gutziz + Nahikoa Ados» ez denean, dagokien erantzun mota zein den argitzeko horrela identifikatu dira esaldi horiek:

[\*] Erantzun aukerak honakoak izan dira: Oso handia; Nahikoa handia; Erdipurdikoa; Nahikoa txikia; Ez dut batere interesik; Ed/ee.

[\*\*] Erantzun aukerak honakoak dira: Garrantzi handia; Nahikoa garrantzi; Erdipurdikoa; Garrantzi gutxi; Garrantzirik ez; Ed/ee.

[\*\*\*] Erantzun aukerak honakoak dira: Etorkizunean euskaraz bakarrik egitea nahi du; Bietan egitea nahi du, euskaraz orain baino gehiago; Bietan egitea nahi du, orain bezala; Bietan egitea nahi du, euskaraz orain baino gutxiago; Etorkizunean gaztelaniaz bakarrik egitea nahi du; Ed/ee.

(\*) A. Gutziz + Nahikoa ados; B. Gutziz ados; C. Nahikoa ados; D. Ez ados, ez aurka; E. Nahikoa aurka; F. Gutziz aurka; G. Ed/ee.

## Adostasunaren intersekzioa

Ondoko taulak erakusten digu bi hereneko adostasuna jaso duten esaldien intersekzioa, edo, beste hitzetan esanda, gutxienez hirutik bik (bi herenek) babesturiko ideiak aldi berean partekatzen dituzten EAEko biztanleen proportzioa.

<b>% 66,6tik gorako babesa izan duten esaldi GUZTIEKIN adostasuna adierazi duten biztanleen kopurua</b>		
	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
<b>Gutziz + nahikoa ados</b>	1.463	67,7
<b>Besteak</b>	697	32,3
<b>Guztira</b>	2.160	100,0

Hortaz, EAEko biztanleriaren %67,7k osatzen du adostasuneko zoru komun hori.

## Diskurtso partekaturako zoru komunaren onarpen langatik urrun daudenak

Esan bezala, beraz, EGODen zehazturiko bost diskurtsoak osatzen dituzten 33 esaldietatik 17 dira bi hereneko onarpen langa gainditzen dutenak. Beste 16 esaldiak langaren azpitik daude. Hama sei horiek ez dute, ordea, onarpen-langarekiko urruntasun bera. Badira, esate baterako, %59ko onarpena dutenak, eta %4koa edo %11koa baizik ez dutenak.

Bi hereneko onarpen-langarekiko urruntasunaz ohartzeko, %50eko onarpenaren azpitik geratzen diren esaldiak hartu ditugu. Guztira 11 esaldi (idea) dira %50eko onarpenera iristen ez direnak. Ondoren datorren grafikoan jasota daudenak dira. Horietatik guztietatik 8 diskurtso mesfidatiaren esparrukoak dira (esan

behar da, diskurtso mesfidatiko ideia guztiak geratzen direla %50eko onarpenaren azpitik)<sup>3</sup>.

Gutxienez gizarteko % 50aren onarpenera iristen ez diren ideiak			
Zk	Diskurtsoa	Esaldiak	Gutziz + nahikoa ados
1	Pragmat.	Gaur egun, euskaraz jakiteak prestigio gehiago ematen dio pertsona bati	47
2	Sustatza.	Euskara jakitea ezinbestekoa da herri honetako kide osoa sentitu ahal izateko	45
3	Mesfidatia	Euskara ikatea esfortzu handiegia da, trukean lortzen den onurarako	31
4	Sustatza.	Hemen euskaldunen eskubideak urratu egiten dira	29
5	Mesfidatia	Euskararen aldeko neurriek erdaldunak diskriminatzen dituzte	26
6	Mesfidatia	Hobe da jendeak ingelesa ikatea euskara ikatea baino	25
7	Mesfidatia	Euskara ez da egokia komunikazio behar berrietarako, lan munduan, teknologia berrietan, etab.	22
8	Mesfidatia	Euskara erabiltzea zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat	18
9	Mesfidatia	Zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea	13
10	Mesfidatia	Euskara abertzaleen kontua da, ez herritar guztiona	11
11	Mesfidatia	Euskara galtzea niri ez litzaidake inportako	4

- 
3. Bost ideia dira onarpen-langaren azpitik eta %50ekoaren gainetik, tarte horretan, daudenak. Guztiak dira diskurtso aldarrikatzailearen esparrukoak.